

# artelka

**Espazioen  
gaineko langile  
kontrola**



**«Proletalgo iraultzailearen helburu  
estrategikoa lurralde osoaren gaineko  
langile kontrola ezartzea da, edo nahi bada,  
lurralde osoa langile kontrolpeko espazio  
bihurtzea. Bere eginkizun historikoa, bada,  
harreman sozial kapitalisten marko hertsian  
uzkurturik dauden lan prozesu sozialak eta  
ekoizpen baliabide erraldoiak printzipio  
sozialisten arabera berregituratzea da»**

# 06

## EDITORIALA

Arteka

Espazioen gaineko langile  
kontrolaren garrantziaz

# EDUKIA

# 10



## ERREPORTAJEA

Paul Seijo

Gaztetxea, noren etxea?  
Gaztetxeen ibilbideari  
errepaso bat

# 32



## ARGAZKIAK

Erraki

Okupazioaren aurkako  
ofentsibaren aurrean,  
espazioen gaineko  
langile kontrola aldarri

38



## **ELKARRIZKETA**

Arteka

**Gaztetxearen noranzkoa,  
xedearen arabera**

**Oier Salegi**

Azpeitiko Gaztetxea

**Bittor Altube**

Abadiñoako Gaztetxea

**Uxue Zamorano eta Markos Napal**

Sugarra Gaztetxea (Lizarra)

60



## **ARGAZKIAK**

Beñat Etxebarria

**Birjabetzeko, antolakuntza**

50



## **ERREPORTAJEA**

Eneko Carrión

**Distopia hurbiltzen ari da**

66



## **ERREPORTAJEA**

Arteka

**Jabetza pribatuaren  
defentsa estrajudiziala**

# Espazioen gaineko langile kontrolaren garrantziaz

EDITORIALA

**A**skatasuna da proletalgoa proletalgo egiten duen ezaugarri nagusietako bat, iraganeko gainontzeko klase sozial menderatuekiko ezberdintzen duena. Ez omen du inork ezertara behartzen antza. Juridikoki askea baita; inork legez menderatzen ez duena eta merkatuaren lehian nahieran parte hartzeko eskubide osoa duena. Balizko askatasun horren atzean, ordea, proletalgoak historian zehar menderatuak izan diren beste klase sozialekin partekatzen duen baldintza bat ezkutatzen da: ekoizpen bitartekoen gaineko jabetza eza. Proletalgoak ezin ditu bizitzeko behar dituen baliabideak eskuratu soldatapeko lan prozesuan murgiltzen ez bada. Bizi nahi badu, soldata behar du; eta berdin du horretarako bizitza galdu behar badu ere. Izan ere, ez dauka bestelako irtenbiderik: aginte kapitalistaren kontrolpeko ekoizpen bitartekoekin harremanean sartu ezean ezereza da, erabateko pobrezia baino ez.

Badago, ordea, proletalgoa proletalgo egiten duen beste ezaugarri bat ere, gainontzeko merkantzetatik ezberdintzen duena: langile borrokaz aginte kapitalistaren botere-dinamika oztopatzeko eta bere interesak defendatzeko duen gaitasuna. Izan ere, ezin daiteke irakurri proletalgoaren historia langile mugimenduarena irakurri gabe.

***Balizko askatasun horren atzean, ordea, proletalgoak historian zehar menderatuak izan diren beste klase sozialekin partekatzen duen baldintza bat ezkutatzen da: ekoizpen bitartekoen gaineko jabetza eza***



***Langile kontrolpeko  
espazioekin behin-betiko  
amaitu nahi duen ofentsiba  
baten erdian aurkitzen gara,  
okupazioaren erabateko  
ilegalizazio saiakeraren  
bitartez gauzatzen ari dena***

Hainbat izan dira proletalgoak aginte kapitalistaren aurka egindako altxamendu saiakerak, kapital metaketaren prozesu itogarrira lotzen duten kateak puskatzeko helburuarekin egindako borrokaldiak. Eginkizun horretan, elementu zentrala izan da historikoki aginte kapitalistaren kontrolpeko prozesu sozialen eta ekoizpen baliabideen gaineko zuzendaritza iraultzailea ezartzea edo, bestela esanda, ekoizpen- eta bizi-prozesuen gaineko langile kontrola ezartzea.

Marko horretan kokatzen da langile kontrolpeko espazioen existentzia, jabetza pribatuaren eta jabetza ezaren arteko tentsio iraunkorrean. Espazioaren gaineko kontrolarena ordea, ez da soilik indar antolatuen arteko gatazka politikoen emaitza, errealitate sozial zabal bat barnebiltzen duen fenomeno da. Langile kontrolpeko espazioak zuzenean proletalgoaren behar sozial zein politikoen zerbitzura dauden espazioak dira, historian zehar orotariko aktibitateak gauzatzeko eskuratutakoak: etxebizitzak, fabrikak, ekoizpenerako lur-eremuak, guneko sozial eta kulturalak, orotariko egoitza politikoak... Beharrian bezain beste adibide sar genitzake, baina, azken finean, jabetza pribatuaren eta elkartrukearen lege kapitalisten aurka indar proletarioaren bitartez eskuratutako espazioak dira denak.

Aginte kapitalistak, ordea, ezin ditu proletalgoaren autonomiari aukera irekiko dioten espazioak onartu; eta are gutxiago krisi testuinguru batean, non ordena sozialaren bideragarritasuna proletalgoaren sumisio osoa bermatzetik igarotzen den. Horixe da hain zuzen egungo egoera. Langile kontrolpeko espazioekin behin-betiko amaitu nahi duen ofentsiba baten erdian aurkitzen gara, okupazioaren erabateko ilegalizazio saiakeraren bitartez gauzatzen ari dena. Besteak beste, alderdi politikoen lege proposamenak, desokupazio enpresen areagotzea edota masa komunikabideen bitartez okupazioaren gainean sortzen ari den iruditegi kriminala ditugu frogatzat. Baina, dena den, langile kontrolpeko espazioetako egoerari erreparatzea besterik ez dago ofentsiba honek eragindako ondorio zuzenak antzemateko, babesgabatasunaren sintoma nabarmenenak ikusteko. Geroz eta handiagoak dira okupazio berriak burutzeko zailtasunak, geroz eta ohikoagoak gaztetxeen aurkako erasoak, geroz eta errazagoa nora joan ez duen familia bat kaleratzea, geroz eta errotuagoa jabetza pribatuaren printzipio klasista, eta geroz eta anekdotikoa goa ezkerreko alderdi aurrerakoien laguntza edo elkartasuna; finean, geroz eta zailagoa bihurtzen ari da langile kontrolpeko espazioen existentzia bera





***Espazioen artean elkartasuna saretzeko  
hainbat saiakera burutu badira ere,  
ez da inoiz denboran zehar iraun duen  
babeserako instituzio eraginkorrik  
kontsolidatu, eta, hortaz, ez da, nolabait  
esanda, langile kontrolpeko espazioen  
zaurgarritasun eta ezegonkortasun  
estrukturalarekin amaitzea lortu***

eta, ondorioz, baita politika iraultzailea garatzeko azpiegitura-baldintzak egonkortzea ere. Izan ere, ikuspuntu militante batetik, langile kontrolpeko espazioak zerbait badira, ekinbide iraultzailearen gotorlekuak dira batez ere. Langile borrokaren berotan sortuak; eta, aldi berean, langile borroka bera sortarazi dutenak.

Esan bezala, proletalgoaren independentzia politikoa garatzeko aukerak irekitzen dituzten espazioekin bukatzea da azken finean aipatutako ofentsibaren helburu nagusietakoa; alegia, aginte kapitalistaren kontrolpetik ateratzen diren espazioak ezabatzea. Horrenbestez, proletalgoak soldatapeko erregimenaren barruan ezer gutxi topatzen duen honetan, bertatik kanpo ere ez du aurkituko sarbiderik bizitzeko edo politika egiteko behar dituen espazioetara; horretarako antolakuntza-baliabide eraginkorrez hornitzen ez bada, behintzat.

Antolakuntza horren nolakotasuna definitzean dago gakoa, ordea. Orain artean hainbat izan dira langile kontrolpeko espazioen errealitatea zeharkatu duten zailtasunak. Nabarmendu ditzagun bi. Batetik, XX. mendeko bigarren erdialdetik gaurdaino doan aro historikoan, langile kontrolpeko espazioak gehienbat erabilerarik gabeko eraikin huts zaharkituak izan dira, jabeentzat baliagarriak izateari

utzitakoak. Bestetik, espazioen artean elkartasuna saretzeko hainbat saiakera burutu badira ere, ez da inoiz denboran zehar iraun duen babeserako instituzio eraginkorrik kontsolidatu, eta, hortaz, ez da, nolabait esanda, langile kontrolpeko espazioen zaurgarritasun eta ezegonkortasun estrukturalarekin amaitzea lortu. Orain arteko gune okupatuak, bada, desalojoaren itzala etengabe jarraika izan duten eraikin zaharkituak izan dira oro har, haien garapenean muga nabarmenak aurkitu dituztenak.

Baiezta daiteke orain arte hegemonikoa izan den okupazio ereduarentzat ez dela izan guztiz beharrezkoa aipatutako mugekin edo zailtasunekin behin-betiko amaitzea. Zergatik diogu hau? Hain justu hemen zailtasun gisa seinalatzen ditugun baldintzetatik sortu zelako etxebizitzaren eta gune sozialen okupazioan oinarritutako kultura politiko hori: espekulazio urbanistikoak utzitako eraikin hutsak birziklatzea, gentrifikazioaren ondorioz hutsik geratu ziren herriak berreraikitzea, influentzia kapitalista zapaltzaileetatik kanpo espazio askeak irekitzea edota asanblada lokal eta horizontaletan bizi-esperientzia askatzaileak izatea... Horrelako helburuak dituen mugimendu batek biziraun dezake nolabait, babeserako instituzio eraginkorrik gabe, eraistear dauden periferiako eraikin abandonatueta.



***Ikuspuntu politiko batetik,  
langile kontrolpeko espazioak  
prozesu horri ekarpen bat  
egiten dioten ezinbesteko  
azpiegitura-baliabideak  
dira, instituzio burgesekiko  
independentea den politika  
proletarioaren gotorleku  
nagusiak, alegia***

Auzia oso ezberdina da berriz helburu oso ezberdinak dituen mugimendu politiko batentzat: guretzat behar beharrezkoa da orain arte langile kontrolpeko espazioek topatutako mugak gainditzeko lan-tresnak sortzea, hau da, erronka handien neurrira egindako baliabide eraginkorrak sortzea. Izan ere, proletalgo iraultzailearen helburu estrategikoa lurralde osoaren gaineko langile kontrola ezartzea da, edo nahi bada, lurralde osoa langile kontrolpeko espazio bihurtzea. Bere eginkizun historikoa, bada, harreman sozial kapitalisten marko hertsian uzkuriturik dauden lan prozesu sozialak eta ekoizpen baliabide erraldoiak printzipio sozialisten arabera berregituratzea da, eta, hori, gaurdanik aginte kapitalistaren kontrolpean dauden ekoizpen- eta bizi-prozesuen gaineko zuzendaritza iraultzailea ezartzen joatetik igarotzen da, tokian tokiko eta gaitasunen araberrako borroka prozesuak abiaraiz horretarako. Ikuspuntu politiko batetik, langile kontrolpeko espazioak prozesu horri ekarpen bat egiten dioten ezinbesteko azpiegitura-baliabideak dira, instituzio burgesekiko independentea den politika proletarioaren gotorleku nagusiak, alegia.

Hausnartu dezagun beraz langile kontrolpeko espazioen defentsaz, okupazioaz, gaztetxez, eta funtsean, jabetza ezaz eta jabetzeaz. Izan ere, proletalgoak ekoizpen bitartekoak menderatu beharko ditu nahitaez, eta ez alderantziz, bere kondizio sozialarekin betiko amaitu eta gizadiaren *askatasun* unibertetsala erdietsi nahi badu. /



ERREPORTAJEA

# GAZTETXEA, NOREN ETXEA?

gaztetxeen ibilbideari errepasso bat

Testua **Paul Seijo**



Gabari Gaztetxea /  
LARRAUN / 1996-2004

Lau hamarkada ditu jada gaztetxeen historiak, eta oraindik ez da bere akabura heldu. Nonbait baztertuta zeuden eztabaidak berpizten ari dira Euskal Herrian, eta auzitan jartzen ari dira gaztetxeen, okupazioaren edota espazioen jabetze eta defentsaren nolakotasuna. Eztabaida horiei elementuak eskaini asmoz gaztetxeen fenomenoak izan duen ibilbidearen errepaso bat egingo da hemen, bereziki alderdi bat eramanez erdigunera: gaztetxeen artean izan diren koordinazio eta instituzionalizazio saiakerak.



Larraungo Gazte  
Asanblada, Kubako  
Iraultzari eta Egin  
egunkariari elkartasuna  
adierazten

**X**X. mende erdialdean egiturazko aldaketa nabariak bizitzen hasi ziren Europan eta AEBetan; ekonomikoak, estatuen konfigurazioari dagozkionak nahiz kulturalak. 1960ko hamarkadan langile mugimenduaren birmoldatze bat eragingo zuen belaunaldi gazte bat sortu zen, eta aldaketak proposatu zituzten mobilizazio ereduetan, aldarrikapenetan, antolakuntza-subjektuetan eta parte hartze politikorako ereduetan. Esperientzia horietan bilatu behar ditugu hurrengo hamarkadan zabalduko den espazioen jabetze, kudeaketa eta kontrol ereduaren aurrekariak, gaurko egunera arte heldu den okupazio eredu ustez politikoa<sup>[1]</sup>.

1960ko hamarkada luzean zehar izan ziren okupazio eredu berria aurreitxuratu zuten lehen esperientziak. Sorburu nagusia non kokatzen den zehaztea ezinezkoa den arren, 1968. urteak esperientzia horiek Europa erdialdeko herrialdeetan zabaltzen lagundu zuela esan daiteke. Dena den, eredu horren sorrera, garapen eta zabalpen definitiboa 1970eko hamarkadan eman zen, bereziki, bigarren erdialdean. 1970eko hamarkadan askatu zen krisi ekonomikoa ez zen nolanahikoa izan, eta ondorio politiko nabariak ere eragin zituen, gutxienez, Europako langile mugimenduan. Mendebaldeko langile mugimenduaren gehiengoa soldatari lotutako borroketan murgildurik zegoela, krisi testuinguruak horrekin apurtzea zekarten esperientziak sorrarazi zituen, gaitasun mobilizatzailerik esanguratsuekin zenbait kasutan. 68ko errebolta kulturaletako proposamenek eragin nabaria izan zuten, eta okupazio eredu aldaketa horien agerkari paradigmaticoa da. 1968ko biharamunak sortuko zituen Alemanian, Holandan edota Frantzian *Squatter* proiektu ezberdinak, baita Italiako okupazio esperientziak ere, tartean, *Centri Sociali*-ak direlakoak, gaurko zentro sozial autogestionatuen inspirazio iturri argiak.

Espazioen okupaziorako proposamen berri horiek nolabaiteko errebeldia forma berriak sortu zituzten. Iraultzaren eta exodoaren arteko zerbait ziren, baina bietako bat ere ez zinez; gizartearen barruko mikro-gizarte utopistak sortzea, baina ez eredu hori gizarte osora zabaltzea. Anarkismo berri baten eta situazionismoaren arteko filosofiak ziren okupazio eredu berria sortu eta «okupa» horien jarduna zehazten zutenak, baina zaila da batasun ideologiko zehatz bat definitzea proiektu horiei dagokienez. Are gehiago, okupazio eredu horren ezaugarrietako bat da estrategia politiko iraultzailearekiko bereizita gertatzen dela, eta beraz, egitura politiko eta klase interes kontrajarrien disputarako plaza bilakatzen dela espazio «liberatu». Dena den, esperientzia horiek partekatzen dituzte iden-



ALTSASUKO GAZTETXEA / 2019

tifikaziorako zenbait elementu, hala nola, identitate zeinu bilakaturiko asanblearismoa, autonomia eta autogestioaren kontzeptu eskusibista, arte eta estetika bat, jaiaren bidezko praktika politikoaren «desakralizazioa», edota informazio fluxu alternatiboak (kontrainformazioa).

### 1980KO HAMARKADA EDO LEHEN BILAKAERAREN HAMARKADA (1980-1992)

Euskal Herrira ezberdin eta atzeratuta heldu zen mugimendu berri horien olatua. Trantsizioan zehar Espainiako Estatuko ekoizpen-sistema marko europar batean guztiz integratzeko eta irabazien hazkunde iraunkorra berreskuratzeko beharrezko eta behin betiko berregituraketa ekonomiko eta politikoak gauzatu ondoren agertu ziren, 1980ko hamarkadan, okupazio eta autogestioaren lehen praktika







Okupazioaren fenomenoak aipatzean, edo are «okupazio mugimenduak» berba egitean, ez gara ari desjabetzearen fenomenologia osoak hitz egiten, baizik eta horren tipologia zehatz batez, 60ko hamarkadan sortzen hasia eta hurrengo hamarkadetan garatutakoa

ALTSASUKO GAZTETXEA / 1992-1993





**Gaztetxeak sorreratik bertatik hasi ziren jarduerak eta ikuspegiak partekatzen aipatutako bide ezberdinen bitartez, eta 1984 eta 1986 artean izan ziren jada koordinaziorako aurreneko dinamika irekiak**



Torreberri Gaztetxea / ZUMAIA / 2008



horrekin bat zetozen proiektuak (*squatterrak*). Urte askoren ondoren modu publikoan eta aldarrikatuan egindako lehen okupazioak izan ziren.

Euskal Herriko lehen «okupek» *squatter* ingelesak, *provoak*, *kabouterak*, *krakerak*, Italiako *Centri Socialiak*, *yipieak*, eta garaiko antzeko esperientziak hartu zituzten eredu bezala, baina badago berezitasun bat gaztetxeei dagokienez. Herrialde askotan etxebizitzari lotutako beharretik abiatu ziren, gero, helburu sozial eta politiko jakinei erantzun zieten proiektuak (zentro sozialak, okupazio eredu horren arketipoak). Euskal Herrian, ordea, *baby boomeko* lehen belaunaldien gaztaroa, gazteen langabezia tasa ikaragarria, lurraldearen eta espazioen birkatalogazio orokortua, belaunaldi arteko haustura kulturala, aisialdi ez instituzionalizaturako aukera falta, okupazioaren izaera berantiarra, eta beste horrenbeste faktore tarteko, gaztetasunean ardatutako (gainontzekoetan baino modu agerikoagoan) eta, batez ere, aisialdiaren bidez kanalizatutako mugimendu bat sortzea ekarri zuen: gaztetxeena. «*Euskadin dagoen Squat mugimendua jardueraren edo zerbitzu publikoetako zentroetarako okupazioa da. Etxebizitza gisa okupatutako etxeak ere badaude, baina okupatzaileek ez dute beren kasuaren berri eman nahi, eta, beraz, indargabetu egiten da balizko aldarrikapen-izaera*»<sup>[2]</sup>.

1970eko hamarkada bukaeratik baziren aisialdia autogestionatzeko espazio batzuk, baina jatorrizko izendapena badirudi 1983koa dela. Urte horretan okupatu zuten Donostiako Gazteen Etxea, izenaz gain, espazioa eskuratzeko prozeduragatik, kudeaketagatik eta erabileragatik esperientzia pilotua izan zena. Besteak beste, hogeitabat gazte talde, musika talde punky eta heavyak, antzerki taldeak, talde ekologista eta sexu askapenaren aldekoak, nahiz hainbat antolakunde politiko biltzen zituen batzorde bat sortu zen okupaziorako. Ohiko bihurtuko zen prozedura horrek gaztetxeen beraien jarduna ere goitik behera baldintzatzen zuen.

Adierazpen ezberdinak zituen amalgama kultural berri baten sorrera ekarri zuten krisi ekonomikoak, bazterkeriak eta heroina bezalako drogen kontsumo masiboak, ZEN planak eta kriminalizazioak nahiz Europatik zetozen hedonismo akrata eta probokazioaren ideologia berriek. *DIY* lemak, *No future* ideiek, eta *anti*, *post* eta *neo* aurrizkien orokortzeak norbanakoaren askapen inmediatean oinarritutako kultura post-autonomoa sortu zuten, fanzineen, gaztetxeen eta gazte asanbladen, irrati librean eta Euskal Rock erradikalaren bidez hedatua. Agerkari horiek, beraz, elkarrekintzan ulertu behar dira ezinbestean. Lehen hamarkada honetan

behintzat, ideologia punkyaren gidaritzapean sortutako zirkulu musikalen, identitate eta azpikultura ezberdinen eta horien erlazio-sareen menpe zeuden gaztetxeak, besteak beste. Eferbeszentzia kultural eta artistiko baten testuingurua da, zeinetan ezinbesteko elementuak ziren azpikultura punky eta tribu ezberdinen presentzia, dadaismoaren ondorengotzatik sortutako adierazpen artistiko ezberdinak eta musika, gaztetxeak *Indiani Metropolitani* zirelakoan euskal bertsio bilakatuz.

Lehen gaztetxeen olatua ez zen txikia izan, batez ere kanal informatibo informalez osaturik zegoela pentsatzen badugu. Hamabost bat herri izan ziren hasiera batean gazteentzako lokalak eskatzen edo okupatzen hasi zirenak, eta nahiko jarraian autoizendatu ziren mugimendu propio gisan. 1984an sortu zen lehen koordinazio eta instituzionalizazio saiakera formala: Gipuzkoako Gazteen Eguna. Azkoitia, Zumaia, Lasarte, Oñati, Legazpi, Orereta, Donostia, Antzuola, Zestoa, Urretxu-Zumarraga, Beasain, Durango eta Ermuako asanbladak batu ziren, eta ekimen ludikoak eta jaia presente izanda, gaztetxeen ezaugarri komun batzuk adostu zituzten; hala nola, asanblearismoa, gazteria guztiari irekitako espazioak izatea, lokalak lortzeko helburuei erantzutea eta baldintzarik gabeko jardun propioetarako dirulaguntzak lortzea. Asanblada guztien arteko koordinazioa ere aldarrikatu zen.

Gaztetxeak sorreratik bertatik hasi ziren jarduerak eta ikuspegiak partekatzen aipatutako bide ezberdinen bitartez, eta 1984 eta 1986 artean izan ziren jada koordinaziorako aurreneko dinamika irekiak. Gaztetxeen identitatearen zehaztapenean esanguratsuak izan ziren 1986an Orion egin zituzten Euskadiko Gazte Asanbladen I. Jardunaldiak. Gaztetxeen existentziaren zergatia, estatutu batzuen zehaztapena, langabezia, errepresioa eta *Squat* mugimenduaren gaineko zenbait hausnarke-ta landu zituzten, besteak beste. Horrez gain, erasoan aurrean protokolo lauso batzuk zehaztu eta okupazio berrien informazioa eman zen, eta gaztetxeak indartzeko eta zabaltzeko koordinadora baten sorrera ere izan zuten hizpide. Lehen Gazte Asanbladen Koordinadora formalak paper garrantzitsua bete zuen gaztetxe berrien irekieran.


Koordinadora horretan parte hartzen zuten eta koordinadorak bultzatzen zituen gaztetxeak eredu batekoak ziren, batez ere: *autonomia difusoa* zelakoaren eraginak zituztenak. Gazteriaren ezkerreko mugimenduetan zeuden gatazkak presente zeuden gaztetxeetan ere, eta sortutako mugimendu kontrakultural guztiarekin batera, gaztetxeak eta gazte asanbladak heuragantzeari eta horiek baliatzeari







Lore Etxearen erasketa /  
**IRUÑA** / 1992  
 © Blas Campos



Maravillas /  
**IRUÑA** / 2018







DEUSTUKO GAZTE LOKALA / 90. hamarkada

DEUSTUKO GAZTE LOKALA / 2020



lotutako gatazka ideologikoak etengabeak ziren agente ezberdinen artean. *Gazteriak*<sup>[3]</sup> aldizkariaren arabera, 1988an 50 gaztetxe eta gazte asanblada inguru zeuden, baina guztien arteko koordinazio praktikorik gabe. Aldizkari horretako elkarrizketa batean hiru gaztetxe mota bereizten dira: egote hutsari garrantzia ematen ziotenak, ekimen kulturalak erdian jartzen zituztenak, eta gaztetxe politikoa-koak. Azken horiek izan ohi ziren egituratuena, eta kolektibo eta jarduera kultural ugari barne hartzen zituzten. Historian zehar gaztetxeen ezaugarria izan da uneko eragile politiko edo despolitizatzaileen indarraren arabera osatu izan direla bere izaera, jarduna eta beste gaztetxe eta eragileekin daukaten harremana. Ikus ditzagun, beraz, 80ko hamarkadan gaztetxeetan eta modu sektorialean antolatzen ziren eta beste borroka-ekimenetan zeuden korronte ideologiko nagusien jarrerak.

Batetik Jarrai zegoen, garaiko gazte antolakundeetan indartsuena. Gaztetxeen lehen fasean taktika ezberdinak baliatu zituen lekuan leku, tartean, erregelamentazioaren aldeko posizioak, gaztetxeetako jarduna kontrolatzen saiatzea, proiektutik alde egitea edota prestigioa kentzeko saiakerak. Gaztetxeen gaineko proiektu finkorik ez zeukan Jarraik, baina badirudi Estatuaren partetik zegoen gazteria-

rentzako aisialdi eta kultur eskaintza urriaren osa-garri funtzioak esleitzen zizkiela, batez ere.

Ezker sektoreko beste talde batzuek ere bazuten zuzenean gaztetxeetan eragiteko gaitasuna. 1970eko hamarkadako indarrarekin alderatuta ahulago bazeuden ere, 80ko hamarkadan baziren oraindik, adibidez, troskismoarekin edo maoismoarekin identifikatzen ziren hainbat talde estra-parlamentario. EMK-k adibidez, hainbat saiakera egin zituen gaztetxeetako gazteria ihardeslea indartzeko edota horretaz baliatzeko. Zer Xabilau?, 1983an EMK-ren ekimenez Oñatin sortu zen udal hautagaitza (zeinaren programan Oñatiko Gaztetxe aitzindariaren aldeko aldarrikapenak egiten ziren), edota 1987an Donostian sortu zen Zirika gazte plataforma, okupazioaren praktika hauteskundeetarako baliatzeko saiakerak izan ziren, baina hauteskunde helburuez gain, gaztetxeetan ohikoa zen talde horietako kideen jarduna ere.

Bestetik, bazegoen autonomia-ostekoak edota libertarioak ziren kolektibo ezberdinen nahaste bat, gaztetxeei izaera politiko propio bat esleitzen saiatzen zirenak<sup>[4]</sup>: Zirikatu taldea, Kenka, Patxa, *Resistente* kolektibo eta aldizkaria, 1970eko hamarkadako autonomo ohi batzuk, CNT inguruko baten bat... Tokian tokiko talde ezberdinek osatzen zuten joe-



Gaztenea /  
ATARRABIA / 2012-2013



LAUDIOKO GAZTETXEA /  
Ezkerrean, 1993an  
Goian, gaur egun



ra hori, beraien arteko koordinazio eta koherentzia maila txikiarekin. Gazteteetatik autonomia propio baten sorrera, egunerokotasunetik abiatutako gizartearen kritika eta bizitza alternatibo baten sorrera ziren proposatzen zituzten ideietako batzuk. Lehen fase honetan, joera horiek izan ziren gazteteen arteko elkartzeko eta instituzionalizazio saia-kerak bultzatzen aktiboen ibili zirenak<sup>[5]</sup>: Lehen Gazte Asanbladen Koordinadora; *Más o Menos* gazte-autonomiaren eta libertarioen arteko koordinazio saiakera eta, horren bidez, okupazioaren inguruko Orioko Asanblada (1988). Joera politiko zehatz bat eta autonomiaren gaineko kontzeptu zehatz bat zeukatenak batu ohi ziren esperientzia horietan, baina Orioko Asanbladako partaideen artean apurketa bat izan zen: autonomia difusioaren antzeko planteamenduak zeuzkatenak batetik, eta okupazioa behar material eta subjektibo propioen esperimentazio bezala ulertzen zutenak, bestetik. Koordinazio saiakera horietan espazioen jarduerak, garapen teorikoak, egoeraren analisiak eta izaeraren nolabaiteko definizioak hartu zuen garrantzia berezia, eta ez hainbeste espazioen defentsak.

Ikusten den bezala, beraz, badago beste sektore bat, gazteteen historian iraunkorra izan dena, eta garaiko indar-harremanen arabera dinamika sozial

**Gazteteen ezaugarria izan da uneko eragile politiko edo despoltizatzaileen indarraren arabera osatu izan direla bere izaera, jarduna eta beste gaztete eta eragileekin daukaten harremana**





LEGAZPIKO GAZTETXEA / 1989

**Gaztetxe eredu baten eta autonomiaren kontzeptu baten zabalpen ia totalari deitzen zaio hemen monopolioa, post-autonomoen dekadentziatik sortutako identitatearen (gaztetxeroak) eta ENAMen interesen arteko aliantzatik sortua**



LEGAZPIKO  
GAZTETXEA /  
Gaur egun



bat edo bestea indartzen zuena, baina aurreiritzi ideologiko batzuen pean beti ere: despolitizatzaileena. Horiek esperientzia eta behar subjektiboak erantzuteko baliatu ohi zituzten gaztetxeak, eta edozein motatako praktika politiko zein koordinaziorako saiakera blokeatu ohi zuten, gaztetxeak gizarte burgesean funtzio subsidiarioak betetzera bultzatuz. Sorreratik bertatik, eta bereziki hasierako urteetan, disputa ohikoa izan da gaztetxeen ikuskera guztiz despolitizatzailea eta politikoagoa dutenen artekoa.

Lehen fasearekin bukatzeko, aproposa izan daiteke CEMIC-en<sup>[6]</sup> ikerketa baten emaitzak azaltzea. Beste hainbat konturekin batera, gaztetxeetako gazte mugimenduen porrotari lotutako hainbat faktore aipatzen dira: okupazio proiektuetatik kanpoko gazteekin konexioak erraztuko lituzkeen «parte hartze pedagogia» baten falta, barne gatazkak, zenbait sektore baztertzeko bokazioa eta espazioa kudeatzeko gaitasun falta. Ikerketa horren asmoa edozein izanik ere, gaztetxeen inguruan hausnartzerakoan, kontuan izateko puntuak dira inondik ere. Euskadiko Okupen Asanbladak garai bertsuan egingo zituen hausnarketekin antzekotasunak ditu, gainera<sup>[7]</sup>: komunikabideen eta poliziaren eragina, kontrolatutako espazioetako baldintza penagariak, sektore batzuek garatzen duten bazterketa teoriko eta efektiboa nahiz drogaren agerpenaren ondorioak aipatzen ziren, baita *ghetto*etatik irten eta kanpoan babesa bilatzeko beharra ere, indarren korrelazioan modu positiboan eragiteko.

### 1990EKO HAMARKADA EDO GILTZARRI HAMARKADA (1992-2000)

1992. urtea espektakulu handien eta errepresio ikusgarriaren urtea izan zen. Bereziki Ezker Abertzaleko kideentzat, baina baita okupentzat ere. Asko izan ziren urte horretan hustu zituzten edo desalojo prozesu eta saiakerak jasan zituzten gaztetxeak: Laudio, Andoain, Sopela, Ibarrangelu... Guztietan enblematikoena eta esanguratsuena izan zen Bilbokoa, gaztetxeen historian mugarri izan zena. Hurrengo urteetan desalojoen mamuak ez ziren gelditu. Ordura arte okupazioaren aurrean izan zen definizio eza eta onargarritasun legal eta politikoa desagertuz joan ziren hamarkada horretan, alderdi politikoen ekimen propioz hasieran (PSOE, EAJ), eta Zigor Kodearen aldaketa bidez 1996an.

1990eko hamarkadako aurreneko bost urteetan *impasse* egoera bizi zuten gaztetxeek: zatiketak, belaualdi arteko arazoak, *gaztetxe* kontzeptu orokor baten falta... Gaztetxeen krisiak zerikusia zuen autonomiatik edaten zuten mugimenduen gainbehe-

rarekin eta, horri lotuta, gaztetxeetan eragiteko gaitasuna identitate baten erreproduktzioa mugatuz joan zen. Dena den, aztergai interesgarria da 90eko hamarkada hasieran autonomoen ondokotasun batetik sortu zen Euskal Herriko etxe okupatu eta gaztetxeen koordinakundearen esperientzia. Talde honek, espazioen defentsarako talde latente bat izateaz gain, hausnarketa teorikoan aurrerapenak egin zituen, okupazioa askapen estrategia zabala go baten praktika bezala txertatzen saiatuz. Besteak beste, kulturaren mozorroa hartzen duen boterearen (burgesearen) ideologia errefusatzeko zuten, baita Iruñeko etxebizitzaren egoera aztertu ere: etxebizitzaren banaketaren klase izaera, biztanleriaren lekualdaketa eta zonifikazioa... Okupazioaren nolabaiteko birkokatze estrategiko horrek ez zuen izan okupazioaren izaera goitik behera aldatzeko zorterik ordea.

Horrez gain, Ezker Abertzalearen egokitzapen prozesua gehitu behar zaio horri guztiari. Jarraik paper nabarmena bete zuen, ez bakarrik Ezker Abertzalea berrosatzen, baita, hala nola, ENAM konglomeratuaren eta okupazio proiektuen arteko harremana birdefinitzen ere. 1980ko hamarkadako rock erradikalarekin lortu zuen bezala, eta intsumisio mugimendurekin saiatzen ari zen bezala, haren apustua izan zen gaztetxeen mugimenduaz jabetzea edo beretzat funtzional bihurtzea. Jarrai nahiz Herri Batasuna okupazio proiektuak babesten hasi ziren. Hamarkada bukaerarako, Ezker Abertzaleak gazte mugimenduaren monopolio ia osoa eskuratu zuen, gaztetxeak barne, noski<sup>[8]</sup>.

Zigor Kodearen aldaketak, ordea, 1996-2001 urteen artean, eragin suspertzailea izan zuen okupazioaren zabalpenari eta babes sozialari dagokionez Espainiako Estatuan<sup>[9]</sup>. Errepresioa jasan bai, baina urte horietan jarduna zabaldu zuten, agenda politikoan garrantzia hartu zuten, eta ordura arteko mobilizaziorik ikusgarrienak (kopurua zein indarkeria maila kontuan hartuta) egin zituzten. Euskal Herrian ere halaxe gertatu zen, gaztetxe eta asanblada berri ugari sortu ziren, eta horien arteko koordinazio saiakerak ere bai: EHEGOK (Euskal Herriko Etxe eta Gaztetxe Okupatuen Koordinakundea) izan zen nagusietako bat, Ginebrako *Interquat* inspirazio zuen sarea. publikoki oso esanguratsua izan ez arren joera bateko okupazio proiektu askorentzat garrantzia handia izan zuen barne mailan; KGB (Bizkaiko Gaztetxeen Koordinadora) ere hamarkada horretan sortu zen, BOMen aurrekaria; eta Gipuzkoako gaztetxeen artean ere koordinazio saiakerak izan ziren.

Garai honetan zabalduriko koordinazio saiakera



**EGIAKO  
GAZTETXEA /**  
1987-1992







Ametsenea /  
EGIA /  
2005

gehienek okupazio prozesuak erraztu eta defentsara bidean komunikazioak hobetzea zuten helburu nagusi, horretarako, okupazio esperientzien jakintza eta irakaspenak sistematizatu. Lege aldaketak nabarmen eragin zuen horretan. Asko zabaldu ziren okupazio eskuliburuak, eta Internet bidezko lehen komunikazio sareak ere sortu ziren. Esperientzien metaketa horrek ahalbidetu zuen hamarkadako bigarren erdian gaztetxe proiektuak horrenbeste zabaltzea (adibidez, Durangaldean bakarrik, Elorrio, Otxandio, Abadiño, Atxondo, Berriz eta Durangoko gaztetxeak ireki ziren). Gaztetxeen izaera ez zen jada hainbeste jartzen auzitan, Ezker Abertzalearen eta post-autonomoen dekadentzia identitarioaren arteko aliantza gatazkatsuak homologatutako mugimendu bilakatu baitzen.

Aipaturiko paradigma aldaketa horren guztia erdian, eta orduko belaunaldi aldaketa eta aldaketa kultural orokorre lotuta, gaztetxe eredu berri baten sorrera aipatu beharko litzateke. Eredu horrekin, ardatza gazterian eta gazteriararen kontrakulturetan kokatu ordez, auzoetan eta herrietan kokatzen saiatu ziren. Gazteria albo batera utzi gabe, espazio geografikoak garrantzia hartuko zuen, hau da, bertan errotzea eta aldaketa kulturalak eta jokamolde aldaketak han bilatzea. Esponente nagusiak izan ziren Iruñeko Euskal Jai (1994-2004) eta Bilboko Kukutza III (1998-2011), baina gainontzeko gaztetxeen iruditegi eta jardun orokorrean eragin nabaria izan zuten.

### 2000KO HAMARKADA EDO MENDE BERRIKO HAMARKADA (2000-2011)

Mende berrira oso osasuntsu sartu ziren okupazio proiektuak, edo behintzat, presente eta aktibo. Babes sozial handia lortu zen urte horietan eta horren erakusgarri da, besteak beste, horren asimilatura dauden sindikatuek ere babesa erakutsi izana praktika horri<sup>[10]</sup>. Baina, 2000ko hamarkadan zehar, Ezker Abertzalearekiko dependentzia apurto ordez, handitu egin zen. Ezker Abertzaleak, 1998. urtearen osteko bere paradigman, eta bere kontrako ofentsiba errepresiboaren ondorioz, jarrera bereziki zentripetua hartu zuen, eta gaztetxeen mugimendua ere, praktikan, bere appendize bilakatu zen.

Hamarkada hasieran gazte mugimendu abertzaleak bazuen indarra eta, horri lotuta, gaztetxeek ere bai. Hainbat izan ziren garai horretan okupatutako gaztetxeak, eta hamaika koordinazio saiakerak ere. Saiakera horiek oinarri zituzten helburuak 1990eko hamarkadako bigarren erdian zehaztutakoan antzekoak ziren: komunikazioa eta okupazioak tekniko-laguntzea. Dena den, kanpaina aldarrikatzaileak

ere eraman ziren aurrera, etxebizitza eskubideari lotuta, esaterako. Euskal Herriko Okupazio Biltzarra, Euskal Herriko Gaztetxe eta Gazte Asanbladen Mahaia edota Koordinadora, edo Gaztetxe eta Gazte Asanbladen Gida maila nazionalan egingako zenbait saiakeraren emaitzak izan ziren. Baina sekulako loraldia izan zuten eskala txikiagoko saiakerek ere: Ezkerraldeko, Durangaldeko, Deba-goienako, Iruñerriko, Uribe Kostako, Goierriko eta beste hainbat eskualdetako koordinadorak sortu ziren, baita, BOM, Ipar Euskal Herriko Gaztetxeen Koordinadora<sup>[11]</sup> edota NAGA ere. Egitura propioak garatzeko ezintasunetik, eta beste mugimendu politiko batzuekiko ezinbesteko dependentziagatik, testuinguru horretan, oso aldakorrek eta sarritan bizi laburrekoak ziren saiakera horiek.

Pentsatzekoa denez, hamarkada horren azken aldian, eta Ezker Abertzalearen baitako transformazioen harira, agortutako paradigma eta blokeo aro batean sartu ziren gaztetxeak ere. 2000ko hamarkadaren amaiera gisan ezar daiteke Kukutza III gaztetxearen huste eta eraistea, Ezker Abertzale Ofizialistaren desagerpen prozesuarekin batera, fase berri bati ateak irekiz.

### 2010EKO HAMARKADA. GILTZARRI BERRI BATEN HAMARKADA? (2011-2020)

Bukatu berri den hamarkadaren garapena esanguratsua izan da. Ezker Abertzalearen behin betiko konbertsioaren osteko lehen urteetan espazio sozial militanteetan eta taula politikoan eragiteko gaitasun handia zuen Ezker Abertzaleak, eta besteak beste horrek, garaian zabaldutako mobilizazio eredu bereizgarrien (15M edota PAH Espainiako Estatuan) hedapena saihestu zuen Euskal Herrian<sup>[12]</sup>. Hamarkada horretan olatu argirik izan ez bazen ere, proiektu berriak sortuz joan ziren gutxika. Dena den, desalojo forman baino, jardunaren gutxitzean eman zen proiektu horien itzaltzea; izan ere, gaztetxeak kulturalki, ideologikoki eta politikoki Ezker Abertzale Ofizialistak bereganatu izanak, azken horren inboluzio prozesuari men egin behar izatea eragin du. Are gehiago, gaztetxeen aurreneko urteetako jardunaren eragile nagusi zen dinamika kontrakulturala lurperatuta, eta gainontzeko eragile politikoak ezereztuta gelditu ostean.

Desalojo eta bestelako erasoei dagokienaz, defentsarako gaitasun propioak ahulak izan dira, eta gaztetxeen historian ohikoa izan den bezala, lekuan lekuko babesetik eta indarrekiko dependenteak. Defentsa gaitasunik eta oihartzun mediatikorik gabeko husteak izan dira gehienak. Izan da, ordea, entzute handia lortu duenik; Iruñeko Maravillasena







Pinupe Gaztetexea /  
LIZARRA / 2003



Sugarra Gaztetexea /  
LIZARRA / 2021

edo Donostiako Kortxoenearena, esaterako. Kasu horietan mobilizazio handiak eta eskala nazionaleko borroak piztu baziren ere, lokalistak ziren dinamikaren formari dagokionez, eta ez zuten etorkizunerako indar metaketa egonkorrik ahalbidetzen. Egitura politiko eta komunikatibo ezberdinek egindako apustuen menpekoak ziren.

Horri lotuta, 2010eko hamarkadako lehen erdian, gaztetxeen arteko koordinazio saiakera gutxi eta eskala txikikoak izan ziren. Laudion egindako gaztetxeen arteko topaketak izan ziren lehen saiakera bat, eta horren ostean etorri ziren Oñatikoa edo Iruñekoa ere. Azken urteetan gaztetxe askok mendekotasun organikoak ere bazuen Ezker Aber-

tzale Ofizialistarekiko, baita azken horrek nolabaiteko erantzukizun bat ere gaztetxeen gainean. Hor-tik sortu ziren hainbat saiakera (Gaztetxeen Gida, Gure Kabuz Ala Hil proiektua...), tartean, Gazte Eraiki ekimenaren barneko gaztetxeei buruzko dinamika. Monopolioa berrestera eta organizatiboki indartzera begira sortutako azken esperientzia horrek, ordea, oso bestelako emaitzak utzi zizkion Ernai antolakundeari.

Azkeneko hori ofizialismoaren hegemonia ideologiko eta kontrol organikoaren galera progresiboaren erakusgarri bada ere, ez da adierazgarri bakarra izan. Beste hainbat zirkulu militanterekin batera, gaztetxeek, horien bueltan izan ohi den informazio, proposamen, eztabaida eta militanteen zirkulazioa medio, ezaugarritze estrategiko berrituak eta antolakuntza proposamen propio eta independenteak dituen mugimendu politiko berri baten sorrera ahalbidetu dute. Mugimendu Sozialistak gaztetxeak behar izan bazituen bere burua sortzeko eta lehen garapen baterako, gaztetxeen gaineko proposamen berriak eta kontzeptu aldaketak ere proposatu ditu, agente esanguratsu bilakatuz. Hamarkada bukaerako aldaketa ideologikoen adierazle izan ziren herrialde ezberdinetan egindako gaztetxe eta gazte asanbladen topaketak, esaterako.

Defentsa propioa antolatzeari lotuta ere izan da proposamenik. *Squatting* proiektuetan hezitako kidego batek espazio horien babesgabatasun hazkorrekin apurtzen hasteko saiakera bat proposatu zuen, eta 2019an Erraki sortu zen Gune Autogestionatuen Babes Sare bezala, defentsa antolatzeko

kultura berri bat planteatuz. Espazioen autonomia erreala eraikitzen hasteko antolakuntza saiakera bat da, zehazki, espazioen gaineko kontrola gara-razi dezaketen baldintza eta eraso zuzenen aurka, klase bezala modu independentean erantzuteko proposamena. Errakik hasieratik lortutako harre-ra onak erakusten du gazteteetan nabarmena zen transformazioa, izan ere, sortzen ari ziren tipologia berri bateko proposamenek guztiz aldatu zituzten gazteteetako indar-harremanak. Jabetzari lotuta-ko problematika komun batean identifikatzea eta horrekiko modu kontsekuentean jarduteak nahiz defentsari lotutako konpromisoaren eta diziplina-ren beharra ulertzeak, autonomiaren (eta autoges-tioaren) ikusmolde osatuago eta erreallago bat sor-tzea eragin zuten, eta horretan sakontzen jarraitu du Errakik.

Azkenik, proposamen berriak ere egin ditu Erra-kik iragan hamarraldiaren azken pausoetan. Kon-tzeptu estrategiko berritzaile bat batetik, alegia, Langile Kontrolpeko Espazioena<sup>[13]</sup> (bere burua ere LKEen Babes Sare bezala birbataituz), eta koiun-tura orokorrari erantzuteko kanpaina politiko bat bestetik, okupazioaren kontrako kanpaina media-tiko, juridiko eta praktikoari aurre egiteko. Ikus-teke dago Errakik bere potentzial politiko guztia garatuko duen edo ez, baina Langile Kontrolpeko Espazioen biziraupena bermatuko bada, gaitasu-nen antolakuntza eraginkorrak ahalbidetu duelako izango da.

### ONDORIO POLITIKO BATZUEN ZIRRIBORROAK

Gazteteen ibilbidearen berrikuste orokor bat egiteko saiakera bat izan da lan hau, horretarako, garai bakoitzeko elementu orokor eta esanguratsue-tako batzuk hartuta. Ez dago esan beharrik gazte-txe bakoitzak historia propioa duela eta orokorta-sunaren barruan salbuespenak badirela. Ikerketaren emaitzen inguruan egindako hausnarketa orokor batzuk plazaratuko dira orain, kaleko eztabaidak termino arrazionalen ematera begira ekarpen txi-ki bat egiteko asmoz. Gertaera historikoetatik ere gaurko jardunerako ikaspenak ateratzeko asmoz.

Ikerketan zehar argi ikusi da gazteteen iza-e-ra pururik eta aurrez determinaturik ez dagoela. Gazteteak testuinguru historiko zehatz batean eta hipotesi teoriko batzuen ondorioz sortzen diren arren, momentuan momentuko eta lekuan lekuko indar-harremanen arabera aldakorrak izan dira eta praktika eta teoria bat ala beste garatu dituz-te. Norbaitek esan dezake indar-harremanek (klase gatazkak) gazteteen izaera determinatzen dutela

**Hori da, zenbaiten iritziz, gazteteen magia, potentzialtasuna eta esentzia: neutraltasuna. Baina jakina da neutraltasuna fikzioa dela interesen talkan oinarrituriko gizartean**

esatea ezer ez esatearen beste dela, hori bera baita gizartearen osotasuna determinatzen duena. Bai-na bada berezitasun bat gazteteen kasuan. Orain arteko gazteteen ezaugarri nagusia mugimendu politiko propio batean formalki eratzeko izan du-ten ezintasuna da, eta beraz, sektore ezberdinen arteko sokatirarako plaza publiko bilakatzen di-rela. Hori da, zenbaiten iritziz, gazteteen magia, potentzialtasuna eta esentzia: neutraltasuna. Bai-na jakina da neutraltasuna fikzioa dela interesen talkan oinarrituriko gizartean. Errealitatean pro-posamen eta eragile politiko edo kontrakulturalen edota subjektibitate ezberdinen arteko harremanak zehazten du proiektuaren edo espazioaren izaera (hau da, bakoitzaren eragiteko gaitasunak eta erre-sistentziak: indar-harremanak). Baina, are gehiago, barneko indar-harreman zehatzak ere prozesu so-zial zabalagoen barruan ulertu behar ditugu, hala nahi izate hutsak ez baitu ahalbidetzen gizarte-aren osotasunetik kanpo kokatzea (eta beraz, klase arteko indar-harreman internazionalaren barruan kokatzen dira, bere gizarte- eta lurralde-eskaleta-ko zehaztapenekin). Espazio bat jurisdikzio burge-sari kontrajarrita eskuratu izanak ez du esan nahi espazio horretan indarrean dagoen jarduna gizar-te burgesaren dinamika zabalek determinatzen ez dutenik. Zentzu horretan, gazteteen ustezko neu-traltasunaren eta autonomiaren ideia ere, bertako indar-harremanek determinatutako kontsentsu so-zial batek sortzen du, garai historiko zehatz batean ideologian materializatuta.

*Autonomia* terminoa oso erabilia izan da gazte-txeetan, baina nahiko lausoa eta zehaztugabea ere izan da. 68. urtearen osteko mugimenduen kumeak dira gazteteak, eta mugimendu horien ezaugarriek







Manuela Gaztetxea eta  
desalojo ostea /  
**ZARAUZ** / 1999-2001







**AZPEITIKO  
GAZTETXEA /**  
2000





## Okupazioaren kontrako ofentsiba mediatiko, juridiko eta parapolizialaren testuinguruan, eta gorago aipaturiko baldintza historikoen desagerpen aroan, beraien izatea nola bermatu modu geldian pentsatzera behartuta daude

diskurtso eta praktika desklasatu batera eraman ditu (subjektibitate pertsonaletik abiatzea politika, subjektu independenteen teoriak, identitateen eraikuntzatik planteatzea jarduna, eta abar). Horatik sortzen da, definitua eta formala ez den arren, onarpen orokortua duen autonomiaren kontzeptu lokalista, eksklusibista, eta subjektiboa. Autonomoa jada ez da langileria, baizik eta nukleo lokal bat. Autonomia jada ez da dinamika burges zabalekiko modu independentean jardutearen ondorioz langileria antolatua partetik dinamika sozial gero eta zabalagoen jabetza eta kontrol progresiboa, baizik eta kolektibo murriztu batek auzi propio eta eskusibo batzuen gaineko erabakiak hartzeko gaitasuna. Autonomiaren eraikuntza ez da boterearen eraikuntza terminoetan ulertzen, baizik eta identitate baten eraikuntza modura, ulertu gabe dinamika sozialen osotasuna mende hartzeko gaitasuna daukan Kapitalaren dinamikaren mende daudela horiek ere. Gazteteen historian, post-autonomo eta libertarioek egin zituzten autonomiaren gaineko teorizazioak garatuenak, 1980ko hamarkadatik 1990eko hamarkada erdialdera bitartean. Hala nola, gazte autonomia baten eraikuntzaren aldeko apustua egin zuten, baina praktikoaz gain, porrot teorikoa ere agerikoa da: gazteria ez da autonomia propio baten eraikuntzarako subjektu nahikoa, beraz, are gutxiago horren adierazpen minoritarioak diren gazteteak. Autonomia hori ez bada langileriaren botere politiko propioaren eraikuntza progresiboaren (sozialismoa) terminoetan ulertzen, nukleo lokalarekiko esternoa den dinamika sozialetara azpiratu beharko da etengabe (izan programa politiko zehatz batera, edo edozein motatako dinamika burgesera, adibidez, desalojo bat), zeinaren gaineko inolako kontrolik ez duen.

Askok luza gaitetze gaztete askok izan duten eta duten autonomiaren ulerkera erredukzionista sorrarazten duten baldintza historikoen inguruan. Alderdi bat ekarriko dugu erdira, ordea: espazioen defentsa edo desalojoen aurrean Langile Kontrolpeko Espazio izaerari eusteko moduak. Legearen zehaztasun falta eta nolabaiteko onargarritasuna, elkarreraginean garatutako gazte kontrakultura

zabal bat izatea, babes egitura garrantzitsuak osatzen zituzten beste mugimendu politiko batzuen existentzia, mobilizazio sozial erlatiboki orokortu baten egoera, gaiaren gaineko trataera mediatiko zehaztugabe eta aldakorra... Hainbat faktorek ahalbidetzen zuten espazio okupen defentsarako antolaketa espontaneo, errizomatiko, koiuntural eta informalak sortzea, eta noizbait bere fruituak ere eman zituen horrek.

Historian zehar metodo horien eraginkortasuna eta ondorio politikoak zer nolakoak izan diren baloratzea sartu gabe ere, autonomia desklasatua defentsa metodoak kolokan daude okupazioaren kontrako ofentsiba hazkorreko garai honetan. Espazioen lege kanpoko jabetzan oinarrituriko proiektuak hausnartzera bultzatzen ditu errealitateak: okupazioaren kontrako ofentsiba mediatiko, juridiko eta parapolizialaren testuinguruan, eta gorago aipaturiko baldintza historikoen desagerpen aroan, beraien izatea nola bermatu modu geldian pentsatzera behartuta daude. Zentzu horretan, ezinbestekoak ari dira izaten Errakiren antolakuntza bitartekoak, aurrerapen teknikoak, garapen teorikoak eta mobilizazio proposamenak. Gazteteen autonomiaren eraikuntza langileriaren autonomiaren eraikuntza da, eta asmo hori adierazi du Langile Kontrolpeko Espazioen Babes Sareak.

Bukatzeko, eskerrak eman erreportaje hau idazteko ezinbesteko izan diren informazioa, esperientziak eta pasarteak modu zuzen edo zeharkakoan konpartitu dituzuenoi, eta bereziki, urte hauetan guztietan borondate iraultzailez gazteteetan lanean ibili zaretenoi. Borondate iraultzaile hori hauspotzera begira baliagarria izan daitekeelakoan egin da ikerketa hau, gazteteen gaineko hausnarketa eta berregokitze baten beharraz konbentzitu, horien ibilbidearen ikuspegi orokorrak gaurko gazteteen egokitasunaren inguruan pentsatzeko elementuak eskaini ditzakeelakoan. Eztabaida ez dadila, beraz, erreportaje honetako elementuetan zentratu, eta har dezala garrantzia transformazio sozial sakon eta askatzaile baten prozesuan gazteteek bete dezaketen paperaren gaineko pentsatze arrazionalak. /



## OHARRAK

**1** Okupazioa espazio bat jabetza pribatu burgesaren jurisdikzioarekiko kontrajarriz birjabetzea dela ulertzen badugu, langile mugimenduaren tradizioetan oso luzetik datorren praktika dela ikusiko dugu. Boterearen eskuratzeko gradual baten estrategiari lotuta, ohikoak izan dira etxebizitzaren, ekoizpen-zentro eta lurren, lan politikorako espazio eta egoitzen, zein lurralde zabalen desjabetze eta hartzeak. Horrez gain, klase zapalduak behar erreproduktiboetarako modu espontaneoan espazioak birjabetzea ere etengabea izan da historian zehar. Hala eta guztiz ere, gaur-gaurkoz, okupazioaren fenomenoak aipatzean (gaztelaraz sarritan k-rekin idatzia), edo are, «okupazio mugimenduak» berba egitean, ez gara desjabetzearen fenomenologia osoari buruz hitz egiten ari, baizik eta horren tipologia zehatz bati buruz, 1960ko hamarkadan sortzen hasitako eta hurrengo hamarkadetan garatutakoak. Autogestioaren eredu erreduktionista eta autodefentsa molde lokalista izan daitezke eredu horren nortasunaren ezaugarrietako batzuk, praktika politikoarekin eta ikuskera estrategikoarekin (edo horien existentzia ezarekin) korrelatiboak direnak.

**2** Encuentro de gaztetxes. (1986). *Resiste*, 2. (1986ko Orioko I. Euskadiko Gazte Asanbladen Jardunaldietako eztabaida eta adostasunen balorazioako artikulua).

**3** Etorre, Gaztetxes y Gazte asanbladas: La lucha por un espacio vital. (1988 irailak 8). *Gazteria*.

**4** Bereziki 1980ko hamarkadan izan zuten indarra eta eragiteko gaitasuna, baina aipatutako saiakerak saiakera, ia lekuan lekuko posizioetara mugatzen zen. Garai horretan gaztetxerik politizatuenak eta egituratuak inguru horretako kideek dinamizatutakoak ziren, eta erasoan aurrean antolakuntza gaitasunik handiena ere buelta horretakoek adierazi zuten, esate baterako, Oreretako eta Bilboko gaztetxeak. Gaztetxeen potentzial politiko propioa eta autonomia bultzatzen zutenek dekadentzia operatibo nahiz teorioko argia bizi izan zuten hurrengo hamarkadetan. Eta, ironikoki, joera despolitizatzaileekin bat egin zuten eta, beste agente batzuen aurrean (Jarrai), jarrera erresistentzialista eta identitarioa erakustera mugatu ziren.

**5** Gaztetxeen koordinadora oro bezala, horiek ere, gaztetxe guztien arteko koordinazioa baino, ideologia partekatu bat zeukatenen koordinazioa izan ziren, bereziki gaztetxeak gazte autonomia baten sorrerarako elementu bezala ulertzen zutenena. Proposamen post-autonomoen existentziarako kanal ezinbesteko bilakatu ziren gaztetxeen bidez sortutakoak.

**6** CEMIC, *Redes sociales y juveniles en Donostia*, Vol. III, «El caso de los Gaztetxes» (1990).

**7** Euskadiko Okupen Asanblada 1991n sortu zen, bereziki, etxebizitza proiektuak bultzatzeko. Udal hauteskundeak baliatuz *Derecho a techo* kanpainarekin aurkeztu zuten haien burua eta, testuingurua baliatuz (etxe hutsak, alokairuen kostu altua, gizarte asistentziaren eraginkortasun falta...), okupazioaren praktika indartu zitekeela ulertzen zuten. Besteak beste, okupaziorako eskuliburuak osatu zituzten. 1990eko Squatterren Nazioarteko Kongresuko (Hanburgo) hausnarketatik ateratako ondorioez ari gara goiko puntuak aipatzean.

**8** Gaztetxeen monopolio horrek ez zuen zertan espazioaren kontrol zuzenaren forma hartu, kontrol ideologikoarekin nahikoa zen. Gaztetxe eredu baten eta autonomiaren gaineko kontzeptu baten zabalpen ia erabatekoari deitzen zaio hemen monopolioa, post-autonomoen dekadentziatik sortutako identitatearen («gaztetxeroak») eta ENAMen interesen arteko aliantzatik sortua: tokian-tokian jardungo zuten batez ere, sozializaziorako eta arte eta musika adierazpen ezberdinen zentro nagusia izanik. Aldi berean, salaketa kanpaina eta kanpaina ideologiko propioak eramango zituzten aurrera, baina mugimendu politiko propio eta independenterik (horrek eskatzen duen antolakuntzaren konplexutasuna kontuan izanda) sortzeko gaitasunik gabe. Beraz, sortutako potentzial horren fruituak eraikitako printzipio ideologikoekin bat egiten zuten eta, nolabait, mugimendu politiko propio eta egituratua zenak jasotzen zituen; kasu honetan, Ezker Abertzalea. Bere dekadentzia eta horretarako ezintasunak adieraztean, gaztetxeak desagertu daitezke edo beste dinamika sozial zabalago batek monopoliza ditzake, izan fakzio burgesen batek edo izan mugimendu iraultzaile batek. Bestalde, gaztetxeak Ezker Abertzalearekin lotzen zituen iruditegi soziala eraikitzeko, paper garrantzitsua izan zuten masa-komunikabide

handiek ere, poliziaren kriminalizazio saiakerekin batera (Espainiako Estatuko hainbat Zentro Sozial ETArekin lotzen saiatuz, adibidez).

**9** Besteak beste, 1995 inguruan Espainiako Estatuko kolektibo ezberdinen koordinadora bat sortu zen Zigor Kode berriari aurre egiteko asmoz, eta Bartzelonan eragin berezia izan bazuen ere, bazeagoen Euskal Herriatik parte hartzen zuenik.

**10** *Etxebizitza denontzat okupazioa bultzatuz* izeneko dokumentu bati egiten zaio erreferentzia hemen. 2000. urtean hainbat eragilek sinatu zuten: CC00, ELA, LAB, AFAPP, Okupazioaren Aldeko Batzarra, Donostialdeko Gaztetxeak, Gazte Asanblada eta Etxe Okupatuak, Jarrai, Zutik, EH, Teilatuka Etxebizitzaren Aldeko Gazte Ekimena, eta abar.

**11** Ipar Euskal Herrian *Patxokia* bezalako okupazio esperientziak izan ziren arren, 90eko hamarkadako bigarren erdialdetik aurrera, oso arraroa zen *squatterik* egotea. 2003an sortu zen Ipar Euskal Herriko Gaztetxeen Koordinadora. Garai hartan sei gaztetxe ziren; batzuk Herriko Etxeak lagatakoak eta, besteak, errentan hartutakoak. Beraz, koordinadora horren bidez erantzun beharreko auziak oso bestelakoak ziren. Hemen, auzi garrantzitsu bat mahaigaineratzen da: legalizazioaren edota kogestioaren ondorio politikoak. Ez dago, ordea, horretan sakontzeko betarik.

**12** Mugimendu horien aipamena egiten da okupazio edo *squatting* praktikaren goraldi bat eragin zutelako zenbait lekutan, baina, euskal lurretan, testigantzazkoa izan zen horien eragina.

**13** Proletalgoak (espazioen) jabetzarako duen ezintasuna klase baldintzek eragiten diotela ulertuta, bere beharrak (erreproduktiboak nahiz politikoak) asetzeko aukera bakar gisa aurkeztzen zaio, legedi burgesarekin apurtuz, espazioetara sartzea. Lege burgesarekiko hausturatik sortzen diren espazioei deitzen zaie Langile Kontrolpeko Espazio, beti ere, espazioan aurrera eramaten den praktika langileriaaren proiektu historikoarekiko zuzenean kontrajarrita ez badago (diskriminazio zapaltzaileak onartzen badira, adibidez), edo langileria guztiari eskubide terminoetan unibertsalizatu badakioke.



ARGAZKIAK

ESPAZIOEN GA  
LANGILE KON

**OKUPAZIOAREN  
AURKAKO OFENTSIBAREN  
AURREAN, ESPAZIOEN  
GAINEKO LANGILE  
KONTROLA ALDARRI**



Okupazioaren aurkako ofentsiba salatzeko abiatutako kanpaina politikoaren barruan, **Erraki Langileon Kontrolpeko Espazioen Babes Sareak** ehunka pertsona mobilizatu zituen urtarilaren 10ean Donostian eta Iruñean. «Okupazioaren erabateko ilegalizazio saiakera bat» martxan dela salatzen du Errakik, «eta aurre egiten ez bazaio, proletalgoaren sektore zabaletan eta mugimendu iraultzaile antolatuan ondorio ikaragarriak» izan ditzakeela; adibide modura aipatzen du «etxebizitzara sarbidean» nahiz «gune sozial, politiko eta kulturalengan» izan dezakeen eragina.

Manifestazioetan gogora ekarri zituzten desalojo arriskuan dauden Langile Kontrolpeko Espazioak eta, Iruñean, «zuen legea gure miseria» pankarta eskuetan zuten bi pertsona identifikatu zituzten polizia-indarrek.

















ELKARRIZKETA

# Gaztetxearen norantzkoa, xedeen arabera

Oier Salegi  
**Azpeitiko Gaztetxea**

Bittor Altube  
**Abadiñoko Gaztetxea**

Uxue Zamorano eta Markos Napal  
**Sugarra Gaztetxea (Lizarra)**



Azken urteetan asko izan dira ateak ireki dituzten gaztetxe berriak eta, baita ere, noraezean zebiltzan espazioetan helburuak finkatu dituztenak eta proiektua horiek lortzera bidean norabidetu dutenak. Euskal Herriko hiru gaztetxetako lau kiderekin batu gara herri bakoitzean izandako bilakaera aztertzeko helburuarekin: Azpeitiko Gaztetxea (Oier Salegi), Abadiñoko Gaztetxea (Bittor Altube) eta Lizarrako Sugarra Gaztetxea (Markos Napal eta Uxue Zamorano).

Oier Salegi / Azpeitiko Gaztetxea





## **Zein izan da herriko gaztetxe edo gaztetxeen bilakaera?**

**O**ier Salegi (Azpeitiko Gaztetxea) Azpeitiko Gaztetxeak aurten hamasei urte bete-tzen ditu. Bilakaeraz hitz egiteko beharbada aipatu behar da gaztetxea lortzea asko kostatutako lorpen bat izan zenez jende asko inplikatu zela hasieran; hala entzun izan diegu hasieratik zeudenei. Gero, poliki-poliki normalizatzen joan zen kontua, eta gu hasi ginen garairako, sorreratik bost urtera edo, asanbladak ez ziren hain jendetsuak.

Ia hasieratik nahiko eskema antzekoa izan du urte gehienetan gaztetxeak antolaketari dagokionez. Aisialdiaz, komunikazioaz, azpiegituraz eta gazte problematikaz aritzen ziren lan-talde txikiak zeuden, eta gero talde guztietako kontuak jasotzen zituen asanblada orokorra edo talde eragilea deitzen dioguna.

Lehen urte haietan etxebizitzaren problematikari heldu zitzaion indarrez, esaterako. Kanpaina handia jarri zen herrian martxan. Dena den, agian, gerora izango genituen eztabaidetan ondorioztatzen genuenez, modu horretako kanpainak maila lokalean egiten zirenez eta ez zutenez sistemaren zapalkuntza modu hori osotasunaren baitan kokatzen, oso zaila zen horietatik benetako lorpenak edo emaitzak izatea.

Duela sei urtera arte edo modu horretan funtzionatu izan dugu, baina 2016an, oker ez banago, lan-taldeen egitura haustea erabaki zen. Horren ordez jendeak proiektuak proposatu zituen eta proiektu bakoitzerako behin-behineko lan-taldeak sortuko ziren. Modu horretan, lan-talde fin-koen egitura zurruna hautsi nahi zen eta jendea interesen arabera lasaia gauza batzuetan edo besteetan inplikatu. Aldi berean, esaten zen lan-talde batekoak bestekoekin harremanak egiteko zailtasunak izaten zirela batzuetan, eta proposamen berriak hori aldatzea era lortu nahi zuen.

Kontua da antolaketa modu berriak ez zuela fruiturik eman, eta seguruenik gaztetxeak ezagutu duen urterik kaxkarrena izan zela. Telebista bat sortzeko proiektua sortu zen, baina ez zen aurrera irten eta frustrazio pixka bat sortu zuen horrek, eta gainontzean ez zen proiektu berri-rik. Horrek hein batean eragin zuena izan zen jende askok gaztetxea uztea (ez dakit ordena egokia hori den, edo jendeak gaztetxea utzi zuelako ez zuten egin proiektuek aurrera). Kontuak kontu, esango nuke gure belaunaldiari gaztetxearen «gidaritzaz» hartzeko unea iritsi zitzaigula orduan. Urte hartan hamar lagunetik behera bilduko ginen astero, eta nahiko profil berdinekoak ginen gehienok: Ezker Abertzale Ofizialetik bereizitakoak edo militatu gabekoak, eta sortzen ari zen Mugimendu Sozialistaren lehen urratsekiko interes handia genuenak. Ondorioz, marxismoaren inguruko mintegi eta abarrak egiten hasi ginen, eta zetozen urteetara begira apur bat perspektiba eta antolaketa moduak berregokitzen. Batez ere, lehen aipatu dudan gaiari lotuta agian, hau da, borrokak herri mailan eta modu partzialean planteatzen baziren, antzuak zirela edo ez zutela behintzat gauzak benetan erroitik aldatzeko funtzioa betetzen. Egiten genituen mintegi eta eztabaidetan sistemaren osotasunari erreparatzen eta horrek zapalkuntza forma zehatzak nola gauzatzen zituen jabetzen saiatzen ginen. Hori gauzak planteatzerako orduan jauzi kualitativoa izan zela iruditzen zait.

Kontuan izan behar da Euskal Herri mailan ere politikoki mugimendu handiko urteak zirela, Ezker Abertzale Ofiziala bide instituzionalak lehenesten hasia zen, eta gazteon artean ezinegon nahiko orokortua ari zen sortzen. Horrek txoko ugarian eraman gintuen sistema kapitalistaren funtzionamenduaz eta gure posizioaz hausnartzera eta ikastera. Intuizioz bada ere, han genbiltzan guztiok jabetzen ginen politika egiteko modu berriak behar genituela, subjektua eta

**«Kanpainak maila lokalean egiten zirenez eta ez zutenez sistemaren zapalkuntza modu hori osotasunaren baitan kokatzen, oso zaila zen horietatik benetako lorpenak edo emaitzak izatea»**

**Oier Salegi**



helburu estrategikoak zehaztu, eta horietara ondoen egokitutako politika egiteko. Bestelako heldulekuen faltan, asko eta asko gaztetxeetan hasi ginen kontu horiei guztiei bueltaka.

Hurrengo urteak nahiko emankorrak izan direla esan daiteke. Ikaske-tengatik kanpoan zebilen jende de-zenteren etorrera izan zen orduan, eta perspektiba finduta edukitzeak jendea zertarako eta nola erakarri nahi genuen pentsatzen ere jarri gintuen. Komunitate nahiko indartsua sortu zen gaztetxearen bueltan, bai jende kopuru aldetik, bai politikoki kohesio handia zegoelako ere.

Ondorengo urteetan lan-talde finkoen egitura berrartu genuen, eta batez ere gazte problematikako lan-taldeak indar handia hartu zuen. Perspektiba politiko nabarmena eman zion talde horrek gaztetxeari, sortzen ari zen ildo sozialistari oso lotuta. Alabaina, talde haren perspektiba politikoak gaztetxearen eragiteko esparrua edo berezko esparrua (gazte problematikarena litzatekeena) gainditzin zuen, eta hortik sortu zen Krisiaren Seme-alabak taldea sortzeko (orain Urola Erdiko Kontseilu Sozialistan integratua) eta Esklabetako eraikina okupatzeko ideia. Azken finean, politika gaztetxe bati zegokiona baino modu integralagoan egiten genuen, eta ez zitzaigun ez zintzoena eta ez egokiena iruditzen gaztetxearen markarekin horretan aritzea.

Ondorengo urteetan gure belau-naldiko gehienak apurka-apurka gaztetxea utzi eta bestelako militantzia esparru batzuk bilatzen joan dira, eta gazte berri asko sartu da. Egun, esan daiteke 2000. urteaz geroztik jaiotakoak gehiago direla aurretik

jaiotakoak baino. Gaztetxea beti izan da militantzian hasteko leku egokia eta hala segi dezan saiatzin gara. Mintegien eta eztabaiden bitartez eta asko saiatzin gara hasiberriei interesa piztu eta gaztetxera erakarri dituen egonezin politikoa arrazionalizatzen. Ahalegin horiek gero fruituak eman dituzte.

Egiturari dagokionez aurtengo ikasturterako berriro aldatu da zertxobait. Asanblada orokorraz gain, interesen arabera behin-behineko taldeak sortzea zen asmoa, eta ekintza kulturalaz hausnartu eta antolatzeaz arduratzen den taldea sortu da. Horrez gain, azpiegiturako taldetxoak hiru hilean behingo auzolan masiboak prestatzen ditu lana eraginkorrago egiteko, eta gainerako lan-taldetxoek GKSrekin batera herrian abiatu dugun dinamikarekin lanean dihardute.

**Bittor Altube (Abadiñoko Gaztetxea)** Abadiñoko Gaztetxea orain dela hogeita bi urte okupatu zen eta, gaur egun, herrian egonkortuta dagoen espazioa da. Nahiz eta espazioak hogeita bi urteko ibilbidea duen, duela zortzi urtetik gaur arteko ibilbideaz arituko naiz.

Gaztetxean duela zortzi urte ez zen jardunik ematen, geldi zegoen. Garai hartan, belaunaldi berri bateko kuadrilla bat sartu zen bertan eta, gaztetxea, egoteko toki gisa zabaltzen hasi zen. Gerora, belaunaldi inguru horretako beste gazte-talde batzuk hasi ziren bertaratzen eta herriko gazteei begira eskaintza kultural eta politikoa eskaintza ziren gazte-txearen bitartez.

Gaur egun jada herriko lagun-talde ezberdinetako gazteek osatutako

asanblada egonkor bat izatea lortu dugu, espazioa eta eskaintza landu eta kudeatzen duena. Jardun zabala egiten da herriari begira, bereziki herriko gazteei begira: aisialdirako eskaintza, eskaintza politikoa eta eskaintza kulturala.

**Markos Napal (Lizarrako Su-garra Gaztetxea)** Lizarran, guztira, lauzpabost gaztetxe izan dira. Lehen Nabarrerian okupatu zen pisu bat izan zen. Horrek ez zuen izenik izan. Pisua desalojatzearan kuartel zaharra okupatu zuten, duela hogeita bost urte. Kuartela 2002 urtean desalojatu zuten gutxi gora behera eta geltoki alboan zegoen barrakoiak okupatu zen orduan. Barrakoiak soilik berrogeita zortzi ordu iraun zuen okupaturik. Azkena (gaur egungoaren aurretik), Pinupe Gaztetxea izan zen, ilegalki eraikitako txaleta. Txaleta bukatu gabe zegoen eta okupatu zutenek txaleta eraikitzen bukatu eta txukun utzi zuten. Pinupe Gaztetxea mendian kokatuta zegoen.

Gure belaunaldia bertan sartu zenean topatu genuen egoera ez zen oso ona izan. Jendea ez zen asko gerturatzin gaztetxera. Alde batetik, urrun zegoelako, eta bestetik, bertan zegoen azpiegitura oso mugatua zelako. Esate baterako, elektrizitatea behar baldin bazen antolatutako ekimen baterako (hitzaldi bat, kontzertu bat...) sorgailu elektrikoa eta beste hainbat azpiegitura lotu behar ziren. Oso gaztetxe polita zen baina zaharkituta zegoen eta ez zituen behar genituen baldintzak betetzen.

Horregatik, garaiko gaztetxe horrek gazte mugimendu sendo bat izateko bermeak betetzen ez zituela ondorioztatu genuen, eta beste espazio bat lor-

**«Jardun zabala egiten da herriari begira, bereziki herriko gazteei begira: aisialdirako eskaintza, eskaintza politikoa eta eskaintza kulturala»**

**Bittor Altube**





**Bittor Altube /**  
Abadiño Gaztetxea



tzeko ideiarekin bueltaka hasi ginen.

Espazio berri horrek jende berria erakarri behar zuen. Azken finean, jende gehiagorekin proiektu gehiago atera ditzakezu aurrera. Eta, gainera, gaztetxe berri horrek buruan genuen azpiegitura izan behar zuen. Herriko gazteria motibatu behar genuen, esate baterako, militatzen hasteko.

**Uxue Zamorano (Lizarrako Sugarra Gaztetxea)** Erabaki hartatik jaio zen Sugarra Gaztetxea. Okupazioaren bitartez lortu zen eta aurten bi urte egingo ditu. Lizarrako Alde Zaharrean dago, erdigunean. Horrek eragina izan du proiektura hurbildu den

jende kantitatean eta belaunaldi berri gehiago batu dira proiektura. Gainera, aurreko gaztetxean zeuden azpiegitura gabeziak asko gaur egun ez ditugu. Adibidez, argi-indarra.

**Nolakoa zen lehen eta nolakoa da gaur egun gaztetxearen inguruan dabilen komunitatea?**

**O.A. (Azpeitiko Gaztetxea)** Gaztetxeak beti izan du komunitate izaera nire ustez. Ez agian beti komunitate politiko moduan, baina ordu asko pasatzen dira eta esperientzia asko bizi-tzen dira elkarrekin, eta hor dabilzanak lagun izaten amaitzen dute. Dena

den, esan dudan moduan komunitate hori ez da beti politikoki kohesionatua izan. Lehen, esango nuke bai politikoki, eta bai gaztetxeak bete behar zituen funtzioei buruzko iritzian ere, aniztasun handiagoa zegoela, eta beraz, komunitate bat osatu arren eta ideia batzuk konpartitu arren (antikapitalismoa edo) bakoitzak gaztetxeari ematen ziona eta hortik espero zuena desberdina zela. Horrek ez du kentzen, ordea, hor oso lagun onak egitea edo komunitate izaera izatea.

Gerora, berriz, uste dut komunitatea politikoki kohesionatuago egon dela, eta horrek perspektiba jakin batean lana eraginkorrago egitea ekarri



***Uste dut komunitatea politikoki  
kohesionatuago egon dela, eta  
horrek perspektiba jakin batean  
lana eraginkorrago egitea ekarri  
du; perspektiba konpartitua bada  
eta konpromisoa ere maila berekoa,  
lanaren banaketa erreala eta  
efizienteagoa baita***

**Oier Salegi**



du; perspektiba konpartitua bada eta konpromisoa ere maila berekoa, lanaren banaketa erreala eta efizienteagoa baita. Aldi berean, mugimendu politiko berri batean kokatzen hasi ginenean, gaztetxetik kanpo babes gutxi zegoen, eta horrek gure artean asko batzea eragin zuen.

Orain ere ez dugu, beharbada, gaztetxeko kide guztiok perspektiba politiko bera izango, baino nahiko orokorra da Mugimendu Sozialistarekiko atxikipena.

**B.A. (Abadiñoko Gaztetxea)** Esan dudan bezala kuadrilla bat hasi zen duela zortzi urte gaztetxean batzen. Herriari begira espazioak ez zuen irudi oso onik eta gerora antolatzen genituen gauzetan ez zen jende askorik agertzen. Herriko gazteei ere beldurra edo bertigoa ematen zien gaztetxera hurbiltzeak.

Gaur egun, pandemia garai honetan, egoera ez da onena izan, eta herriko gazte langileok nahiko txarto

egon gara askatasunei dagokienez. Horregatik, lanketa politiko bat hasi genuen, pandemia aurretik lantzen hasiak ginena, herriko gazte-kuadrilla ezberdinekin haien beharren inguruan hitz eginez. Uda honetan eskaintza kultural eta politikoa egin dugu, eta baita aisialdirako eskaintza ere. Oso emankorra izan da. Jada uda honetan sei-zazpi kuadrilletako gazteak batzen hasi gara Gazte Asanbladan eta badago jendea ere antolatzen ditugun ekimen guztietara agertzen hasi dena. Horrez gain, badago ere noizean behin gaztetxean parte-hartu eta antolatzen diren kontuetara hurbiltzen den jendea.

Esango nuke jadanik erreferentzia lortu dugula herrian. Koronabirusaren eta horren gestioaren ondorioz izandako egoera zailean antolatzen eta lan egiten jarraitzen jakin izan dugu, herrian erreferentzia handituz.

**M.N. (Lizarrako Sugarra Gaztetxea)** Nire belaunaldiari asko kostatu

zitzaion Pinupe Gaztetxean sartzea. Normalean nahiko gazte sartzen da jendea gaztetxean parte hartzera baina, gure kasuan, unibertsitatera joan ginen arte ez ginen sartzera ausartu. Nolabait sentitzen genuen gaztetxea ez zela gure profileko jendearentzako zeozer, baizik eta oso profil konkretu batentzako proiektu bat. Sentitzen genuen gaztetxea ez zegoela guretzako egina.

Unibertsitatearekin batera lotsa galdu genuen eta gaztetxean sartzera animatu ginen. Komunitate sendo bat ezagutu genuen bertan, mugimendu politiko bati oso loturik zegoena. Baina, nolabait, hura ez zen masa espazio bat eta ez zuen harreman handirik Lizarrako gazteriarekin.

**U.Z. (Lizarrako Sugarra Gaztetxea)** Gaztetxe berriaren bitartez Lizarrako gazteriarekin zati handiago batek parte-hartzen du proiektuan eta harremana jende askorekin egitea lortu da.

Orain, adibidez, Gaztetxeko Asanbladan, adin askotako gazteek hartzen dute parte. Hamasei urteko gazteak daude, baina baita hogeita bost urtekoak ere. Gainera, inguruko bizilagunekin erlazioa izatea lortu dugu, nahiko positiboa dena. Erronketako bat gaztetxea adin guztietako jendearentzako espazioa izatea da.

Gaztetxean parte hartzeko modu asko daude. Asanblada izatez oso handia da eta jende asko pasatzen da hortik. Bada gaztetxean egunero dagoena, horretarako prest dagoelako, eta bada ere hilabetean behin gaztetxera datorrena, eta modu horretan bere ekarpena egiten duena.

Asanbladaz gain beste eragile askok erabiltzen du espazio hau ekimenak antolatzeko, lanerako esparru gisa edota materiala gordetzeko.

**Azkenik, jarri dezagun arreta gaztetxeen funtzio eta jardunean. Zein dira zuen herrietako gaztetxeen helburuak? Zertan datza proiektua?**

#### **O.A. (Azpeitiko Gaztetxea)**

Gaztetxeak, batez ere, bi esparrutan diharduela esango nuke. Batetik, gazte problematika klase ikuspegitik lantzen dihardugu. Lehengo urtean hainbat saio egin genituen gazte langileok sistema kapitalistan betetzen dugun funtzioaz jabetzeko, eta horri eragiten dioten auzietan esku hartzen saiatzen gara. Gaztetxearen helburu politikoa, berez, gazte problematikak herrian dituen alderdi desberdinak ikertu eta, ahal den neurrian, horien aurkako borrokak martxan jartzea da. Aurtengo ikasturtean, esaterako, COVID-19aren aurrean agintari politikoak pandemiari ematen ari diren aterabidea salatzeak dinamika bat abiatu dugu GKSrekin batera; gazteon aurkako kriminalizazioa medio, kontrol soziala areagotzen eta pandemiari aterabide polizial bat ematen ari direla uste baitugu, osasun arazoari errotik heldu eta hura konpontzen saiatu beharrean.



**Markos Napal eta Uxue Zamorano /**  
Sugarra Gaztetxea (Lizarra)

**«Asanbladaz gain beste eragile askok erabiltzen dute espazio hau ekimenak antolatzeko, lanerako esparru gisa edota materiala gordetzeko»**

**Uxue Zamorano**





Bestetik, gaztetxeak beti izan dira ekitaldi kultural askoren aterpe. Zentzu horretan, ardura dugu musika talde txikiei eta hainbat kultur proposamen berriri bidea irekitzen. Dena den, kultura ekitaldiak eta, oro har, ekoizpen artistikoa zer eta nahi dugun hausnartzea dagokigu. Garrantzitsua da gauzak antolatzen ditugunean zertarako, zer beharri erantzuteko eta zer ekarpen egiteko antolatzen ditugun pentsatzea. Bide horretan, aurtengo ikasturtearen lehen erdian hitzaldi ziklo bat antolatu genuen ekoizpen artistikoaz, kultur industriaz eta egungo testuinguruaz aritzeko. Eta bigarren erdian, hainbat kontzerturekin lotuta, azken urteotako Azpeitiko musika taldeen errepasoa eta musikaren eta politikaren arteko harremanaz aritzeko hitzaldi eta mahai-inguruak prestatzen dihardugu.

Dena den, gaztetxearen proiektua ez da bi alor horietara mugatzen. Bi funtzio nagusiak horiek izanik ere, inplizituki, gazteak militantzia-  
ra gerturatu eta militantzia eskola bat izateko funtzioa ere betetzen du. Gutako gehienok, gaztetxean ikasi dugu lehenbizikoz ardurak hartzen, taldean lan egiten nahiz lanaren banaketak egoki egiten, behar den lekuan aurpegia ematen, eztabaidatzen, gai koiunturalei kritikoki begiratzen, azpiegitura lanak egiten... Garai bateko gaztetxeek zuten irudi marjinal eta narras hartatik urruti, gaztetxea gazte konprometitu eta ondo formatuak hezteko leku egokiena dela deritzot.

#### **B.A. (Abadiñoko Gaztetxea)**

Asanbladak agente politiko bat izan nahi du mundu berri baten eraikuntzan. Badakigu mundu berri hori ezin dugula maila lokaletik soilik eraiki, horretarako antolakuntza sare handi bat behar delako. Hala ere, problematikei maila lokaletik erantzunez eraikuntza horretarako kontzientzia sortzea dugu helburu, lan ideologikoaren eta eguneroko lan praktikokoaren bitartez. Bestalde, sozializaziorako agentea izan nahi dugu, guk nahi





dugun aisialdi eta sozializazio eredua helburu.

Orain kanpaina berri bat hasi dugu Abadiñoko Gazte Koordinadora Sozialistarekin batera, jabetza publikoaren problematizazioa mahaigaineratuz. Azken aldian, COVID-19 pandemiarekin, argi ikusi da Udaletxearen partetik izandako jarrera hainbat udal-azpiegiturekin. Berez publikoa den jabetza horren erabilera ukatu zaigu asanbladari, GKSri, beste hainbat eragileri... edota, adibidez, frontoira jokatzera joan nahi duen orori. Horren ondorioz, herrira zabaldutako kanpaina abiarazi dugu, jabetza publikoaren auzia problematizatuz agerian utziz sistema kapitalistan jabetza publikoa ez dela guztion jabetza, eta horien sozializazioaren alde eginez.

Horrez gain, asmoa dugu ostirale-tan aisialdirako egitaraua eskaintzeko, astero jarduera edo ekintzaren bat antolatuz.

**M.N. (Lizarrako Sugarra Gaztetxea)** Saiatzen ari gara gaztetxea masa espazio bat bilakatzen, batez ere militatzen hasteko aukera erraz bat izateko gazteek; lehen aukera hori irekitzeko. Gaztetxea gertu sentitu behar du gazteriak; lotsarik sentitu gabe etortzeko leku bat izatea nahi dugu. Espazio zabal bat eraikitzen ari gara, jendeak parte-hartu ahal izateko eta propio eta hurbil sentitzeko.

**U.Z. (Lizarrako Sugarra Gaztetxea)** Gaur egun martxan dugun proiekturik garrantzitsuenak Lizarrako Gazte Asanbladaren hogeita bosgarren urteurrena da. Iraila arte hainbat ekintza planteatu ditugu hilabetez hilabete.

Dinamikaren leloa *Gazte ginen gazte gara* da eta azpi-proiektu asko horren baitan barnebilduko ditugu. Esate baterako, dokumental bat ekoizten ari gara, hogeita bost urte hauek jasoko dituen, belaunaldi ezberdinetako testigantzen bidez. Urteurrenaren dinamika indarrarekin bukatzeko, irailerako, Gazte Egun bat dugu esku artean. /



# Distopia hurbiltzen ari da

Testua **Eneko Carrión**

50 — arloka



«Hiru egunkarik mila baionetak baino  
beldur handiagoa ematen didate»

**NAPOLEON BONAPARTE**



# „СВОБОДА“ БУРЖУАЗНОЙ ПЕЧАТИ



## SARRERA

Komunikazioak gaur egun duen garrantzia eztaba daezina denez, oso garrantzitsua da honek nola funtzionatzen duen eta gure pentsatzeko modua nola moldatzen duen ulertzea. Izan ere, komunikabideek botere harrigarria dutela denok dakigun arren, ez gara kontziente zenbateraino eragiten diguten. Azken hilabeteetako adibide aipagarrienetako batzuk pandemiarekin edo okupazioaren aurkako ofentsibarekin lotutako kanpaina mediatikoak izan daitezke. Kanpaina hauen aurrean, nahiz eta pertsona oso arrazionalak izan, gutako inor ez dago kanpoko estimulu horien eraginpean egotetik salbuetsita. Nola funtzionatzen duten ulertzeko, premiazkoa da gure burmuinak nola funtzionatzen duen ulertzea. Burmuina hiru atal nagusitan banatuta dago: narrasti garuna funtzio primitiboenez arduratzen da, hau da, bizirik irautea ahalbidetzen diguten funtzioez; bigarrena linbikoa deritzona da, eta emozioen zatiaz arduratzen da; azkenik, neokortexa dago, arrazoiar arduratzen dena, eta memoria edo hizkuntza bezalako aspektu garrantzitsuak barnebiltzen ditu.

Gure jokabidean eragin nahi duten mekanismo guztiek garunaren lehen bi ataletan eragitea bilatzen dute, arrazoiar alde batera uzten saiatuz. Komunikabideek hainbat eremu barne hartzen dituzte, besteak beste, telebista, irratia, Internet, sare sozialak, zinema, telesailak, eta, hauek era askotakoak direla iruditu dakigukeen arren, guztiek zenbait ezaugarri komun izaten dituzte; ezaugarri garrantzitsuenetako bat, gure arrazoiar ahalmena gutxitzeko gaitasuna da. Bizi garen gizarte azeleratuak gure nahiak berehala ase beharra dakar, eta horrek zailtasun handiak sortzen ditu konplexutasun handiko gaietan sakontzerako orduan, baita hauek problematizatzerakoan ere. Microsoftek 2000. urtean egindako ikerketa baten arabera, gure arreara-gaitasuna hamabi segundo ingurukoa zen, eta gaur egun uste da zortzi segundo baino gehiagoz ez dugula arretarik eskaintzen <sup>[1]</sup>. Hori kontuan izanda, Twitter eta Instagram-en gisako sare sozialen arrakasta ulertu daiteke, edo berehalakotasunaren adibide garbiena den TikTok-ena.



**Ireki nahi den akumulazio-fase berriak zenbait aspektu aldatzera behartzen du gizartea (juridikoak, produktiboak, kulturalak, instituzionalak, errepresiboak...), eta hor komunikabideek garrantzia berezia izango dute**

Mekanismo horiek guztiak kontrolatzeko eta gizarte kapitalista betikotzeko tresna moduan jarduten duten mekanismoen sare konplexu baten parte dira. Ezin dira horiek ulertu garapen kapitalistatik eta fase historiko bakoitzeko premietatik kanpo. Inguratzen gaituen gizartea ekoizpen-prozesu kapitalistaren inguruan eratutako harreman sozialen, praktika kulturalen eta ezagutzen multzo gisa ulertzen da. Kulturaren kontzeptuari buruzko eztabaida oso konplexua bada ere, erreportaje honetan bizitzeko modu baten ekoizpen gisa ulertu eta aipatuko dut <sup>[2]</sup>. Kapitalismoan ematen den erreprodukzio ideologikoari buruzko eztabaida garrantzitsua bezain zabala eta konplexua denez, zenbait zertzelada ematera mugatuko naiz, irakurleak nire ikuspuntua hobeto uler dezan eta bere kabuz ikertu eta sakontzeko aukera izan dezan.

Ireki nahi den akumulazio-fase berriak zenbait aspektu aldatzera behartzen du gizartea (juridikoak, produktiboak, kulturalak, instituzionalak, errepresiboak...), eta hor komunikabideek garrantzia berezia izango dute. Erreportaje hau sektore estrategiko horretara, gaur egun dituen funtzioetara eta etorkizunean izan dezakeen garapenera egindako hurbilketa bat da.

## INFORMAZIOAREN TEKNOLOGIAREN HISTORIA LABURRA

**P**entsamendu eta adierazpen ideologikoen formak aldatu egiten dira ekoizpenaren aldaketan ondorioz, baina ez da aldebakarreko prozesua, hauek ere eragiten baitute ekoizpenean <sup>[2]</sup>. Atal hau informazioaren teknologiak izan duen garapenera egindako gerturatze bat da, irakurleak egunero erabiltzen ditugun teknologien historia hobeto uler dezan. Erreportaje honen helburua ez da informazio-sistemen historia azaltzea, eta, beraz, zenbait data eta ohar esanguratsu ematera mugatu naiz.

Informazioaren teknologiarren garapena eremu produktiboan eta belikoan ematen zirenen eskutik joan da. 1440an inprenta sortu zenean lehen publizitate moduak agertu ziren, baina benetako aurrerapenak Industria Iraultzarekin hasi ziren <sup>[1]</sup>. Telefonoaren sorrera 1876an, irratia 1898an eta huts-hodiena 1906an izan ziren aurrerapen nabarmenenak denbora luzez, baina benetako aldaketa eta hedapena Bigarren Mundu Gerratik aurrera iritsi zen. Gerraren garapenak eta garapen teknologikoak lotura estua izan dute beti, eta horrek ordena sozial kapitalistaren izaera bortitza agerian uzten du beste behin ere. Gerraren ondoren, lehen ordenagailu programagarriak eta transistoreak agertzen hasi ziren, eta hauek mikroelektronikaren oinarriak ezarri zituzten. Urte batzuk beranduego, 1957an, zirkuitu integratua agertu zen, arlo honen aurrerapenerako urrats erabakigarria izan zena <sup>[3]</sup>.

Urteen poderioz, fabrikazio-teknologia hobetzen joan zen, eta horrek haren hedapena eta sarbidea erraztu zuen. 70eko hamarkada informazioaren teknologiak orokortzeko eta aurrerapausoak emateko garai garrantzitsua izan zen. 1971n Silicon Valley (Kalifornia) mikroprozesadorea garatu zen, txip baten barnean ordenagailu bat duen gailu moduan defini genezakeena. Urte horietatik aurrera, lasterketa sutua izan zen arlo honetan aurrera

egiteko; Apple eta IBM izan daitezke horren adierazle nagusiak. Honek, gure garaiko tresna garrantzitsuenetakoa den Internetaren garatzeko baldintzak sortu zituen. Izan ere, hau lehenago sortu bazen ere, 1990ean zabaldu zitzaion eremu honetan oraindik formatu gabeko zegoen masa zabalari Internetarako sarbidea, *world wide web* izeneko aplikazioari (www moduan ezagutzen dugunari) esker <sup>[3]</sup>. Konexioaren hedapenak wifi-aren bitartez, sareen eskutik (3G eta 4G, adibidez) izandako konexio-aurrerapenak eta telefono mugikorraren erabileraren orokortzeak informazioaren erabilera eta kudeaketa goitik behera aldatu dute.

Aurrerapen horiek guztiek eta beste hainbat eremutan emandakoek, optoelektronikaren arloan gertatu zirenek (zuntz optikoak eta laser bidezko transmisioa) esaterako, aurrez sekula ikusi gabeko interkonexio mundial bati ateak ireki zizkioten. Horrek gure bizitzako ia alderdi guztiak aldatu ditu, izan ekonomian, kulturen, harremanetan edo aisialdian. Teknologia hori gabe, gaur egun ezagutzen ditugun komunikabide aurreratu horiek ezingo ziren garatu. Baina eremu honek aurrera egiten jarraitzen du, eta emandako aldaketetara egokitzen saiatzen ari garen bitartean, 5Ga agertu da. Era berean, puntako beste teknologia batzuen bilaketak ez du etenik; ordenagailu kuantikoaren kasua izan daiteke horren adibide <sup>[4]</sup>.

## HEGEMONIA ETA KOMUNIKABIDEAK

Hedabideek hegemonia mantentzen eta hobetzen burutzen duten funtzioa aztertzea da atal honen helburua. Hegemoniaren egonkortzea eta hobetzea, bloke menderatzaileak bizitza ekonomikoan, zibikoan eta kulturean gizarte-batasuna lortzeko duen gaitasun gisa ulertzen da, beti ere, hainbat faktoreen menpe dagoen adostasun-modu bezala ulertuta. Zentzu horretan, komunikabideek funtzio garrantzitsua betetzen dute batasun hau lortzeko bidean, haiei esker klase zapalduak

**Gerraren garapenak eta garapen teknologikoak lotura estua izan dute beti, eta horrek ordena sozial kapitalistaren izaera bortitza agerian uzten du beste behin ere**



**Zentzu horretan,  
komunikabideek funtzio  
garrantzitsua betetzen dute  
batasun hau lortzeko bidean,  
haiei esker klase zapalduak  
etsaien interesak barneratu  
eta defendatzen baititu**







**Sei talde handiek (Time Warner, Disney, NewsCorp, NBC Universal, Viacom eta CBS) munduko sektorearen % 70 kontrolatzen dute: 1.500 egunkari, 1.100 aldizkari, 2.400 argitaletxe, 9.000 irrati eta 1.500 telebista kate**

etsaien interesak barneratu eta defendatzen baititu <sup>[5]</sup>. Baina hau prozesu historiko eta ireki moduan ulertu behar da, hau da, faktore objektibo zein subjektibo ugari parte hartzen duten prozesu aldakor gisa. Kontzeptu horrek dominazio soziala kanpotik datorren inposizio mekaniko soil bezala ulertu ordez, klase-borrokaren menpe dagoen eremu aldakor eta kontraesankor moduan ulertzea ahalbidetzen du <sup>[6]</sup>.

Ordena burgesaren dominazioa, nagusiki, bi aparatu moten bidez burutzen da (azaltzeko helburuarekin egindako bereizketa): alde batetik, gobernua, polizia, kartzela eta, oro har, segurtasun publikoko sistema guztiak barnebiltzen dituen errepresio-aparatua. Garapen teknologikoari esker, kontrol-mekanismo konplexu eta sofistikatuak sortu dira. Batzuk kanpo mekanismotzat dauzkagu; hala nola aurpegia errekonozitzeko kamerak. Eta beste batzuk gure egunerokotasunean barneratuta daudenak; telefono mugikorak, esaterako. Testuinguru orokorrari erreparatzen badiogu, munduko biztanlerik zelatatuena estatubatuarak lirateke, mila biztanleko 15,3 kamerarekin; jarraian txinatarrak leudeke (14,4 kamera mila biztanleko) eta ondoren Erresuma Batuko biztanleak (7,5) eta alemaniarak (6,3) <sup>[1]</sup>. Bestalde, mekanismo ideologikoak egongo lirateke. Ezinezkoa da estatua indarkeria eta

errepresioa soilik erabiliz mantentzea, eta, beraz, beste mekanismo ideologiko batzuk behar ditu indarkeria hori legitimatzeko eta bake sozialari eutsiko dion gizarte-adostasuna antolatzeko. Mekanismo horien artean eskola, familia, sistema politikoa, eliza, kultur konglomeratua eta *mass mediak* daude <sup>[7]</sup>.

J.B. Thompsonen honela azaltzen ditu aparatu ideologikoen efektu eta ondorioak <sup>[8]</sup>:

*«Norbanakoak euren kontroletik kanpo geratzen diren indar ekonomiko eta sozialen menpe daude geroz eta gehiago. Beren biziraupena bera baldintzatzen duten erakunde erraldoien aurrean sakrifikatzen dira. Pentsamendu kritikoa gauatzeko gaitasuna eta gizarte-ordena alternatibo baten alde borrokatzeko borondatea galtzen dute. Hain osoki integratzen dira egungo orden sozialean, ezen euren berezotasuna, autonomia eta indibidualizazioa birtualki erreprimitzen edo ezabatzen baitira».*

**THOMPSON, 1993, 118. OR.**

Mekanismo horiek guztiak, modu desberdinetan bada ere, duten funtzio nagusiak lotzen dituzte: ideologia dominantearen zabalkundeak. Honek, eremu asko hartzen ditu, genero-zapalkuntza, zapalkuntza-nazionala edo

arraza-zapalkuntza betikotzen laguntzen dutenak, esaterako. Hortik harago, hedabide bakoitzak ideia jakin batzuk defendatzen eta sustatzen ditu, ordezkatzen eta indartzen duen frakzio burgesarekin bat datozenak. Komunikabideek Trumpen jarrera protekzionistak kritikatzeko dituztenean ikus daiteke hori, burgesia librekanbistagoa ordezkatzen dutelako; edo batzuek Txinari buruzko ideia jakin bat sortu nahi dutenean, Europak eta AEBek osatzen duten blokearen nagusitasunari eusteko. Hurrengo atalean, informazioaren monopolioa eta bertan eragiten duten eragile nagusiak aztertuko ditut.

## INFORMAZIOAREN MONOPOLIOA

*«Hedabideak kontrolatzeko, benetan dagoen uniformetasuna ezkutatzeko duen ageriko aniztasuna behar duzu».*

**JOSEPH GOEBBELS**

Kapitala zentralizatzeko eta biltzeko joerak bezala, komunikabideek ere bide bera jarraitu dute <sup>[9]</sup>. Batez ere 90eko hamarkadatik aurrera bizkortu zen joera hau, eta horrek, gaur egun, sei talde handiek (Time Warner, Disney, NewsCorp, NBC Universal, Viacom eta CBS) munduko sektorearen % 70 kontrolatzea eragin du. 1.500 egunkari, 1.100 aldizkari, 2.400 argitaletxe, 9.000 irrati

eta 1.500 telebista kate dituzte. Bote-re horrek norbanakook zeri buruz eta noiz eztabaidatzen dugun hautatzeko gaitasuna ematen die beraiei, eta horrek errealitatea haiek nahi duten moduan ulertzea dakar. European, baditugu beste talde handi batzuk: Bertelsmann alemaniarra, BBC britainiarra, Media-Set italiarra (Silvio Berlusconi sortua), Vivendi eta Lagardère frantziarrak eta Prisa espainiarra. Googlek (2006an YouTube erosi zuen), Facebookek (WhatsApp eta Instagram erosi ditu), Applek eta Amazonek (2013an Washington Post delakoa erosi zuen) ikus-entzunezkoen sektorean sartzea erabaki dute, eta horrek aurrez zegoen pilaketarako joera areagotu du. Bankuen eta hedabideen arteko harremana estua izan da beti, baina krisiak jauzi kualitatibo bat ekarri du; izan ere, banku batzuk komunikabide batzuen jabe bihurtu dira, eta horrek areagotu egin du etxegabetzeak bezalako gertakariak ikusezin bihurtzea <sup>[10]</sup>.

Espainiako Estatua aipatu berri dugun joera horren adibide argia da, eta horrek sektorean oligopolioa dagoela esatea ekarri du. Mediasetek eta Atresmediak audientziaren % 58k zer ikusten duen aukeratzen dute. Kontuan izan behar da, Barloventoren txostenaren arabera, alarma egoeran batez beste egunean 278 minutuz aritu garelako telebista ikusten (iaz baino 51 minutu gehiago) eta 167 minutu pasa ditugula Interneten <sup>[11]</sup>. Irratian ere gauza bera gertatzen da: Prisa (Cadena SER), Eliza Katolikoa (COPE), Planeta (Onda Cero) eta Godo (RAC1) taldeek entzuleen % 80k entzuten duena erabakitzen dute, merkatuaren % 97a kontrolatuz <sup>[10]</sup>.

Euskal Herri mailan EITBren sorrera azpimarratu behar da, 1982an hasi baitzen ETB-1 ematen eta lau urte geroago ETB-2. Ipar Euskal Herrian, France 3k Frantziako hegoaldeari esleitzen diona ematen da <sup>[12]</sup>. EITBk, batez beste, 153.053 erabiltzaile izan zituen eitb.eus-en 2018. urtean, eta aurreko urtearekin alderatuta, % 15eko igoera suposatzen du honek. Pandemiak iraun bitartean, audientzia igo



## Kritiko edo alternatibotzat jotzen bada ere, oinarrian dagoen logika berbera da: klase-gizartean bake soziala mantentzea



besterik ez da egin: 28,2ko audientzia kuotara (366.000 ikusle inguru) heldu da ETB-2ko Teleberria, eta 10,5ekora ETB-1ekoa <sup>[13]</sup>. Irratiari dagokionez, EITB Taldeko irratiek (Radio Euskadi, Gaztea, Euskadi Irratia, Radio Vitoria eta EITB musika) 459.000 entzule izan zituzten astelehenetik ostiralera Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan <sup>[14]</sup>. Datuek agerian uzten dute hedabide horien eragiteko gaitasuna, eta horrek politika egiterako orduan bere eragina dauka. EITBk, batez ere, EAJren eta

Confebasken erakunde-mul-tzoaren barruan, nolabaiteko hurbiltasuna eta egokitasuna transmititu nahi ditu, estatuko gainontzeko hedabideetatik bereizteko eta, era horretan, edukiei zilegitasun handiagoa emateko.

Bestalde, azken urteotan EH Bilduk gidatutako ezker subiranistak erakunde horren parte izatearen alde eginiko apustua azpimarratu behar-

ko litzateke. Boto-emaileak irabazteko asmoz, gune horietan duen eragina handitu nahi izan du, ordena instituzio-nalaren barruan garrantzia irabazteko estrategiaren barruan. Horren adibide dira estatutu autonomiko berriaren aldeko apustua, EHUri buruzko politika edo Estatuko Aurrekontu Orokorren onarpena. Garrantzitsua da azpimarratzea, gaur egun, politika nagusiki mediatikoa eta komunikatiboa den zerbait gisa kontzebitzen dela, non garrantzitsuena komunikatzen dena den, eta ez egiten denaren edukia.

Gertakari horiek guztiak ezin dira modu isolatuan ulertu. ETAk bere jarduna bertan behera utzi ondoren zenbait frakziok sortu nahi duten adostasun berriaren parte dira, bertan giza eskubideak edo indarkeria-mota guztien gaitzespena funtsezkoak izanik. Horretarako, funtsezkoa da azken 60 urteetan gertatutakoaren kontakizun bat sortzea, sozialki onartuta dagoen kontakizuna, eta hori da Herenegun hezkuntza-programak duen helburua. Beste adibide bat Ur Handitan telebis-ta saioa izango litzateke; saio honek ikuspegi guztiz humanista lehenesten du, arazo politiko nagusiak alde batera uzten baititu arazo sozialak azaltzeko orduan. Honek despolitizazioa areagotu besterik ez du egiten, eztabaida eta azterketa politiko sakonaren orde-zentzu komunak onartzen duen kontakizun soil bat erabiltzen baitu. Kritiko edo alternatibotzat jotzen bada ere, oinarrian dagoen logika berbera da: klase-gizartean bake soziala mantentzea.

**Panorama honetan, komunikabideek funtsezko zeregina dute, izan errepresio-neurriak aplikatzeko testuinguru egokia sortzen edo neurri hauek aplikatu ondoren justifikatuz**





## Antolakuntza komunista da basakeria kapitalistaren aurka gelditzen zaigun irtenbide posible bakarra

### DISTOPIA HEMEN DAGO

Maiz esan izan den bezala, modernizazio kapitalista ez da soilik alderdi produktiboetara mugatzen, alderdi horiek lotura estua baitute beste alderdi batzuekin, hala nola alderdi sozialekin edo juridikoekin. Pobrezia orokorren gorakadak mekanismo ideologiko eta errepresiboak hobetzeri behartzen du sistema. Panorama honetan, komunikabideek funtsezko zeregina dute, izan errepresio-neurriak aplikatzeko testuinguru egokia sortzen edo neurri hauek aplikatu ondoren justifikatuz. Badirudi datuak funtsezkoak izango direla eredu produktibo eta instituzional berrian, gure mugikorren edo sare sozialen bidez egunero ematen ditugun hauek negozio-iturri handiak baitira, gobernuek eta enpresek erabiltzen baitituzte salmenta, kontsumo eta kontrol sozialerako moduak hobetzeko. Bizi garen aro digitalean, informazioaren kudeaketa produktibitate eta botere-iturri handi bihurtu da, hau da, elementu estrategiko bihurtu da kapitalismoan <sup>[2]</sup>.

Datu horiek lagungarri izango dira bakoitzari egokitutako edukiak sortzeko, eta horrek areagotu egingo du komunikabideek gure portaeran eta subjektibotasunean duten eragiteko

gaitasuna. Neurri horiek guztiak eskubideen urraketa horiek gure onerako direla sinestarazi nahi diguten kanpaina mediatikoen bidez etorriko dira, osasunean, segurtasunean eta gizartean onurak ekarriko dituztela argudiatuz. Horren adibide dira ustez pandemiari aurre egiteko sortutako aplikazioak, gure mugimenduak eta osasun-egoera monitorizatzen dituztenak. Edo 75 herrialdetan kontrol sozialerako sistema aurreratuak ezartzea (adimen artifizialaren erabilera); bertan, hornitzaile nagusiak txinatarrak dira, NEC japoniarrak eta IBM, Palantir eta Cisco estatubatuarrek jarraituta. Nabarmendu beharreko beste adibide bat Mercadonarena da; bertan, uztailearen amaieran, bere 40 saltokitan aurpegia ezagutzeko sistema bat ezarri zuela adierazi zuten <sup>[1]</sup>. Orain dela gutxi urrunekoa eta ezi-nezkoa iruditzen zitzaigun arren, gizarte autoritario eta kontrolatzaileago batera hurbildu gara. Krisialdi bat hedatzen ari da eta, horrekin batera, baita eraberritze eta modernizazio garai bat ere. Honek azkar egokitzera behartzen gaitu, hala egin ezean, porrot egingo dugulako berriro. Antolakuntza komunista da basakeria kapitalistaren aurka gelditzen zaigun irtenbide posible bakarra. /

### ERREFERENTZIAK

[1] Baños, P (2020). *El dominio mental. La geopolítica de la mente*. Ariel

[2] Sierra, F (2020) *Marxismo y comunicación. Teoría crítica de la mediación social*. Siglo XXI.

[3] Castells, M. (2001). *La era de la información: Vol. 3 Fin del milenio*. Madrid.

[4] López, P (30 de julio de 2020) *Ordenadores Cuánticos: Todo lo que necesitas saber*.

[5] Hall, S. (1981). *La cultura, los medios de comunicación y el efecto ideológico. Sociedad y comunicación de masas*, 357-392.

[6] Martín-Barbero, J., & Martín, M. B. (1998). *De los medios a las mediaciones: comunicación, cultura y hegemonía*. Convenio Andrés Bello.

[7] Poulantzas, N., & Claudín, F. (1980). *Estado poder y socialismo* (No. 320.1 P68).

[8] Thompson, JB y Caviedes, F. (1993). *Ideología y cultura moderna teoría crítica social en la era de la comunicación de masas* (No. 320.5 T4).

[9] Castells, M. (2009). *El Poder en la Sociedad Red in Comunicación y Poder*. Madrid: Alianza Editorial.

[10] Barlovento Comunicación (2020). *Balance del consumo de Televisión durante el Estado de Alarma*.

[11] Picazo, S (2019). *Grandes medios de comunicación: de quién son y a quién se deben*.

[12] Hiru (2020). *La televisión en Euskadi*.

[13] EITB (2020). *La audiencia se vuelca con el seguimiento informativo al coronavirus en EITB*.

[14] EITB Media (2020). *459.000 oyentes para las radios de EITB, según CIES*.

# Birjabetzeko, antolakuntza



Irudiak **Beñat Etxebarria**

Gasteizko (Araba) **Etxebizitza Sindikatuak** uztailaren 3an jakinarazi zuen eraikin bat birjabetu zutela Los Herran kalean. Hala, «antolakuntza bidez, espazioa egokitu, elkartasunean oinarritutako elkarbizitza eraiki» eta 30 pertsona ingururen etxebizitza izan zen urtarrilaren 26an biolentziaz kaleratu zituzten arte. Polizia-indarrak goizean goiz bertaratu ziren eraikin ingurura, eta protesta egiteko elkartu zirenen aurka oldartu ziren. Ospitaleratuak, atxilotuak eta Atzerriartasun Bulegora eramanak izan ziren hainbat lagun. Egunean bertan eta hurrengo egunetan ehunka pertsona mobilizatu ziren Arabako hiriburuko kaleetan, etxegabetze guztiak gelditzea exijituz, «etxebizitza doakoa, unibertsala eta kalitatezkoa» aldarri.















ERREPORTAJEA

# Jabetza pribatuaren defentsa estrajudiziala

Testua **Arteka**



Ez dago atzerabuelarik: aurrera doa azpian hartzen gaituen *Juggernauta*. Bizi-baldintzen etengabeko degradazio forman, miseria forman, hamaika ertz izan ditzakeen indarkeria forman. Eta, zalantzarik gabe, oinarritzkoenak diruditen bermeak ere ez dira berme basakeria kapitalistan, ez eta zinez bermatutako aukera. Ezta etxebizitza bera ere.

Hari zoro horretan, gero eta gehiagoren aukera bakarra da legeria burgesarekin haustea eta, aterpe bat ziurtatzeko, okupazioaren hautua egitea, edo egin behar izatea. Hortik jaio dira, erantzun modura, jabetza pribatuaren defentsa egin ahal izateko hamaika tresna berri. Unean-unean indarrean diren mekanismo burges formalek, nolabait, huts egiten dutenean, zirrikiturik irudikaezinenek hartzen dute indarra. Indarkeria forma berriak agertzen dira. Horixe da, hain zuzen, desokupazio enpresen sorrera.

Erreportaje honetan, Espainiako Estatuko desokupazio enpresen -bereziki, Desokupa modura ezaguna den enpresaren- inguruko hainbat zertzelada emango dira, mundu ilun eta lauso horren inguruko hainbat arrasto argitara ateratzeko. Besteak beste, aztergai izango dira lege-babesa, Desokupak esku hartzeko baliatzen dituen metodoak, Desokupak barne hartzen duen enpresa-konglomeratua edota enpresa horiek dituzten hainbat harreman.

## LEGEDI BURGESAREN ITZALA, ETA BABESA

**J**udizioz kanpoko zerbitzuak saltzen dituzten segurtasun pribatuko enpresak dira desokupazio enpresak, eta horien artean ezagunena da Desokupa izenekoa. Prozedura judizialek izan ohi dituzten epeak –luzeagoak– saihesteko kontratatzen dira enpresa horiek, kaleratze estrajudizialak modu azkarrean egin daitezten. Horretarako ezinbesteko elementuak izan ohi dira indarra eta intimidazioa.

Intimidazioa eta indarra tartean izan arren, ordea, horrek ez dakar zuzenean jarduera horiek legaltasunetik kanpo egotea. Enpresa horiek behin eta berriz errepikatzen dute parametro guztiz legalen barruan gauzatzen dutela haien jarduna, eta izatez, hala da.

Espainiako Gobernuaren segurtasun pribatuari buruzko apirilaren 4ko 5/2014 Legeak arautzen ditu desokupazio enpresak Espainiako Estatuan. Hala, lege horrek zehaztutako muga barruan esku hartzen dute Desokuparen gisako enpresek, jarraian ikusiko ditugun legezko metodoak erabiliz:

- Intimidazio ez fisikoa darabilte. Gizonezko gihartsuak izan ohi dira enpresa horietako *matoiak*. Beldurra sortzeko asmoz, maizterren atearen aurrean edo eraikinaren parean egon ohi dira, atea irekiz gero, ezingo dutela berritoki itxi pentsarazteko. Horrez gain, maiz bertaratzen dira etxearen inguruetara edo atarira, maizterrek haiek ikusteko eta presioa areagotzeko.

- Etxebizitzaren jabeak zehaztutako diru kopuru bat eskaintzen diete maizterrei, etxebizitza utz dezaten. Metodo horri dagokionez, bi auzi azpimarragarri daude. Batetik, metodo zehatz hori aplikatu ahal izateko, erosteko ahal-



**Modu horretan, setio egoeran uzten dituzte maizterrak. Izan ere, kalera irteten badira badakite agian ezin izango dutela gero berriro sartu, eta aldatu egingo dietela ateko sarraila. Etxe barruan gordetzeko hautua egiten badute, ordea, hornidura bermatuko dietenak ezin izango dira eraikinera sartu**

men nabaria behar dute kontratatzaileek –hutsik duten etxebizitzaz gain, kontuan izan behar dugu zerbitzu bakoitzak 2000-4000 euro arteko kostua duela, maizterrari eskainitako zenbatekoaz gain–. Bestetik, erabiltzen duten intimidazio estrategiak eta aldi berean ezartzen dituzten bestelako neurriek –jarraian ikusiko ditugunak– ez die dirua onartu eta alde egin beste irtenbiderik uzten maizterrei.

- Sarbide kontrolena da, haien hitzetan behintzat, gehien erabiltzen duten metodoa. Segurtasun pribatuaren inguruko legearen arabera, desokupazio enpresetako mertzenarioak gaituta daude, enpresak hala akreditatzen badu, eraikinaren barnera sartu nahi duten guztiei etxebizitzaren jabeak direla edo alokairuan daudela egiaztatzen duen lege-agiri bat eskatzeko. Modu horretan, setio egoeran uzten dituzte maizterrak. Izan ere, kalera irteten badira badakite agian ezin izango dutela gero berriro sartu, eta aldatu egingo dietela ateko sarraila. Etxe barruan gordetzeko hautua egiten badute, ordea, hornidura –janaria eta abar– bermatuko dietenak ezin izango dira eraikinera sartu, aurrez aipatutako agiri horietakoren bat erakutsi ezean. Metodo hori gauzatzeko baldintza bakarra da atariko presidenteak kontrol horiek egitea baimentzea desokupazio enpresari.



Aipatzekoa da talde horiek ez dutela inoiz eraso fisikorik egiten, zeharo legez kanpokoak bailitzateke halako esku-hartze oro; gainera, nahikoa zaie bestelako metodoekin. Gehienetan arte martzialetan trebatutako pertsonak osatzen dituzte enpresa horiek, eta horrek, delituaren larritasuna areagotu baino ez luke egingo, arma zuri bidez egindako erasoen kategoriaren barruan zigortzen baitira formakuntza hori duten pertsonak egindako eraso fisikoak.

Dena den, ez da horren argia talde horien izaera legala, luzea baita legez kanpoko prozedurak erabiltzen dituztela salatu duten norbanako eta gizarte-eragileen zerrenda. Kasu horien nolakotasunean eta zehaztapenetan sartu gabe, oro har, honako legez kanpoko prozedurak seinalatzen dituzte salaketa horietan: mehatxuak, maizterrak jakin gabe zaintzak egitea eta, maizterra etxetik atera eta une batez hutsik geratu denean higiezina haiek okupatzea, hornidura etetea legez kanpo, eta abar. Desokupak kontratatuta 2019-2020 artean Bartzelonan jardun zuten bi pertsonaren testigantza jaso zuen *Metro-poli Abierta* atariak <sup>(1)</sup>, eta haien arabera, gutxienez birritan izan zuen enpresak polizia-agente baten laguntza. Poliziaz erbitzutik kanpo zegoela esku hartu zuen bi etxe-kaleratze gauzatzeko.

## GENEALOGIA BATEN ARRASTOAK

Daniel Esteve da, Desokupa enpresaren sortzaileen artean, sona mediatiko handiena izan duen bozeramailea –segurtasun pribatuan, hainbat negozioetan eta arte martzialetan trebatua aurretiaz–. 2016an sortu zuten marka komertziala, ordutik gutxienez 5.600 kaleratzetan esku hartu duena. Beren hitzetan, «Espainiako Estatuaren segurtasun indarrek gomendatutako enpresa bakarra» <sup>(2)</sup> dira sektore horretan. Talde operatiboak dituzte Estatuaren lurralde osoan, tartean, Hego Euskal Herrian. Joan den urtearen amaieran 95 lagun zituzten kontratatuta. Estevek aitortu izan duenez, zenbait egunetan hamahiru probintzian aritu izan dira aldi berean. Horretarako, esku-hartzeak gauzatzen dituen talde bakoitzak bere buruzagi propioa du, Esteveren konfiantzazko gizonen bat, aginte zentralarekiko autonomia operatiboarekin. Dena den, «kasu zailenetan, mediatikoenetan edo bortitzenetan», hark zuzenean esku hartu nahi izaten duela adierazi izan du enpresaburuak <sup>(3)</sup>.

Enpresa abarkatzaile erraldoi bat baino, konglomeratu korporatibo zabalago baten parte da Desokupa. Izan ere, arduradun nagusiak eta haiekin negozio gehiago partekatzen dituzten pertsonak beste hainbat enpresetako goi-karguen artean agertzen dira. Bartzelona (Herrialde Katalanak) ingu-

ruan ardaztutako sozietate mugatuak dira guztiak, denbora-tarte bertsuan sortuak eta, maiz, administrazio-kargudunak zein egoitzak partekatzen dituztenak. Zenbait kasutan, negozio-esparru nahiz funtzio berberak betetzen dituzten enpresak dira, gainera. Era-kunde horien zerrenda <sup>(4)</sup> eta bakoitzaren ezaugarriak azaldu ahala, Desokupa negozio-egitura konplexuago baten filiala dela identifika dezakegu, haren sortzaileek mediatikoki esleitu nahi dioten kontakizun boluntarista espontaneoaz gezurtatuz eta atzetik duen enpresa-estrategia kontzientea agerian utziz.

- Brownie Real Estate SL: Esteve bera higiezin enpresa horren kudeatzailea da 2017ko irailetik. Enpresak Bartzelonako (Herrialde Katalanak) Balmes kalean du egoitza.

- Conciencia y Respeto 1970 SL: Sozietate mugatuko enpresa hau etxebizitzan jabea laguntza-zerbitzuak eskaintzeaz, higiezin enpleatuek eta lursailen administrazio zein kudeaketaz arduratzen da. Fernando Jacobo Lasasoa Huch da arduradun nagusia 2017ko abuztutik, Esteve ordezkatu baitzuen. Erakundearen egoitza Brownie Real Estate-k Balmes kalean duen berbera da. Lasasak Bartzelonako lau enpresatan ditu kargu gorenak, hala nola, bidaia-agentzia batean, higiezin salerosketan nahiz erreforman aritzen den beste erakunde batean, okintzan eta eraikuntza sektorean. Conciencia y Respeto 1970 SL erakundeak ondoko marka komertzialak erabiltzen ditu: Desokupa, Desocupa, Desokkupa eta Desblokea.

- Coexistence & Respect SL: Eraikuntza, instalazio eta mantenu lanetan aritzen da honako enpresa hau ere. Esteve zein Lasasak zuzendaritza-karguak dituzte 2014tik, eta Bartzelonako Ecuador kalean dago kokatuta.

- Newton Innova SL: Ehunka korporaziotan goi-mailako karguak izan dituen Raul Pons Serraclarak diskotekak kudeatzeko 2010ean sortutako enpresa da, eta Esteve izan da kudeatzaile bakarra.

- La Isla Fighting Championship SL: 2014an sortutako enpresa honetan ere administrari bakarra dugu Esteve. Borroka kirol ikuskizunak antolatzeaz eta sustatzeaz arduratzen da.

- Entendimiento Sumisión Anastrofe SL: Lasasaren enpresetako bat da, higiezin eraikuntza, promozioa, administrazioa eta esplotazioa bultzatzen dituen, eta 2017an sortutakoa. Negozioak Ecuador kalean du egoitza, Coexistence & Respect SL taldearekin batera.

## ESKARIAREN ATZEAN

2016. urtean hasi ziren esku-hartzeak gauzatzen. Garai hartan, finken salerosketan jarduten zuten jabe handien edota higiezin enpresen jabetzako higiezinetan egin zituzten horiek husteko lehen lau saiakera dokumentatuak, eta inola ere ez partikular edo familia baten jabetzakoetan, eurek dioten bezala. MK Premium, Norvet Property, Univness edo Korsal Project dira, hainbat etxebizitza berreskuratzeko asmoz, Desokuparen zerbitzuak kontratatu zituzten aurreneko jabeak <sup>(5)</sup>.



MK Premiumen kasuan, Desokupa kontratatu zuen La Clota izeneko lursaila husten saiatzeko, Bartzelonako Horta-Guinardó barrutian. Beste zenbait operazioen artean, MK Premiumek Can Sesenta eraikinaren salmenta polemikoa kudeatu zuen, Raval auzoan, Clamarc SL-ren (Jäger & Pachowiak inbertsio funts alemaniarrena) eta Bartzelonako Udalaren arteko bitartekaritza-lanetan. Udalak sei milioi euroren truke erosi zuen azkenean. Desokupako abokatua higiezin elitearen ekitaldi eksklusiboren batean ere ikusi izan dute, Bartzelonako Diagonal etorbideko Engel & Völkersen egoitzan. Enpresa hori munduko erraldoietako bat da prezio altuko higiezin bitartekaritza, 668 milioi euroko diru-sarrerak izan baitzituen 2016 eta 2017 artean, 1.200 jabetzarekin eta 250 agente higiezinekin. Merkatu-hobi zabalak topatu du Bartzelonan bereziki.

Desokupak arrakasta izan zuen lehen kasu dokumentatua izan zen Can



**Talde operatiboak dituzte  
Estatuaren lurralde osoan,  
tartean, Hego Euskal  
Herrian. Joan den urtearen  
amaieran 95 lagun zituzten  
kontratatuta. Estevek aitortu  
izan duenez, zenbait egunetan  
hamahiru probintzian  
aritu izan dira aldi berean**





Dimonikoa, 2016ko apirilean hustutako eraikin bat, hain zuzen ere. Hasiera batean, bertan behera utzitako finka handi bat zirudien, Bartzelonako Gracia auzoaren erdigunean degradazio-prozesu betean zegoena. Baina hiriko barruti horrek alokairuaren prezioan urtez urte izandako bilakaerari erreparatzen badiogu, igoera nabarmenenarekin egiten dugu topo. 2017ko otsailean, adibidez, %22,1eko gorakada izatera heldu zen, aurreko urteko hilabete berdinarekin alderatuz gero <sup>(6)</sup>. Gainera, prezioen eskala 2010etik 2020ra jarrita, 2016 inguruan ikus daiteke alokairuaren prezioaren igoera esponentzialena, Desokuparen sorreraren urte

# Horra hor Desokuparen funtzioa, alegia, merkatuaren fluktuazio koiunturalen abiaduran molda ezin daitezkeen lege erreformen hutsuneak betetzea, burgesia monopolistaren mesedetan



berdinean.

Can Dimoniko desalojora itzulita, Desokupak eraikina legez kanpo hustu eta hurrengo egunean, Norvet higiezinen agentziak proiektu berri bat iragarri zuen: 45 eta 100 metro karratu arteko zortzi apartamentu, teknologia adimendunarekin, igerilekuarekin eta lorategiarekin. Alokairuen prezioak gora egiten duen testuinguruan, higiezinen sektoreko inbertsore espekulatzailerei errentagarriak ez diren bizilagunak ahalik eta azkarren kanporatzea interesatzen zaiela ondoriozta daiteke. Horra hor Desokuparen funtzioa, alegia, merkatuaren fluktuazio koiunturalen abiaduran molda ezin daitezkeen

lege erreformen hutsuneak betetzea, burgesia monopolistaren mesedetan.

## ESKUAK

Talka-indar handia galdegiten duen jarduera da Desokuparena. Horretarako, arte martzialetan, segurtasun pribatuan edota paramilitarismoan aritutako pertsonak hautatu eta kontratatzen dituzte. Estevek berak ere, hein batean, profil hori betetzen duen arren, badira ezaugarri horiek nagusiak baino modu nabarmenagoan biltzen dituztenak, faxistak tarteko. Ernesto Navas Palacin boxealaria <sup>(7)</sup>, adibidez, etxe-kalartzeetan aritu izan den gizonetako bat da. Hitleriar Gaztediaren besokoa daruma tatuaturik ezkerreko besoan, eta sabelean, berriz, Rudolf Hess Hitlerren ordezkari militar eta Alderdi Naziko goi-karguaren izena. 2000ko hamarkada hasieran zenbait eraso faxista egitea leporatu izan diote, hain zuzen, komunista gazteei labanarekin eraso egitea. Navasek boxeo-gimnasio batean egin zuen topo Estevekin eta Jivko Ivanovekin. Azken hori ere Desokupako mertzenarioen artean dago, eta Europa Ekialdeko hainbat milizia ultraeskuindarretako kide izan da, antza <sup>(8)</sup>. /

## ERREFERENTZIAK

1. [metropoliabierta.com/informacion-municipal/sucesos/desokupa-policia-desajolos-desahucios\\_28256\\_102.html](http://metropoliabierta.com/informacion-municipal/sucesos/desokupa-policia-desajolos-desahucios_28256_102.html)
2. [desokupa.com](http://desokupa.com)
3. [youtube.com/watch?v=EwIU6DWlpmk](https://youtube.com/watch?v=EwIU6DWlpmk)
4. [stopdesokupa.noblogs.org/desokupa/empreses-vinculades](http://stopdesokupa.noblogs.org/desokupa/empreses-vinculades)
5. [diagonalperiodico.net/global/32047-aliados-desokupa-em-la-sombra.html](http://diagonalperiodico.net/global/32047-aliados-desokupa-em-la-sombra.html)
6. [idealista.com/sala-de-prensa/informes-precio-vivienda/alquiler/cataluna/barcelona-provincia/barcelona/gracia/historico](http://idealista.com/sala-de-prensa/informes-precio-vivienda/alquiler/cataluna/barcelona-provincia/barcelona/gracia/historico)
7. [stopdesokupa.noblogs.org/desokupa/ernesto-navas-palacin](http://stopdesokupa.noblogs.org/desokupa/ernesto-navas-palacin)
8. [stopdesokupa.noblogs.org/desokupa/jivko-ivanov](http://stopdesokupa.noblogs.org/desokupa/jivko-ivanov)



Argitaraturik  
**2021EKO OTSAILEAN**  
**EUSKAL HERRIAN**

Koordinazioa, Erredakzioa eta Diseinua  
**GEDAR LANGILE KAZETA**

Web  
**GEDAR.EUS**

Sare sozialak  
TWITTER **@ARTEKA\_GEDAR**  
INSTAGRAM **@ARTEKA\_GEDAR**  
FACEBOOK **@ARTEKAGEDAR**

Harremanetan jartzeko  
**HARREMANAK@GEDAR.EUS**


Harpidetza egiteko  
**GEDAR.EUS/HARPIDETZA**

Lege gordailua  
**SS-01360-2019**

Lizentzia







arteka